



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko ekainaren 10ean

53 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### **Galderak:**

- 1998ko abuztuaren 23an, Ultzama ibaian arrain hilak agertzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Industri jarduerak ingurugiroan duen eragina aurreikusi, zuzendu eta kontrolatzeko inbertsioetarako 1997ko dirulaguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Nafarroan ur jabari publikoan kokaturiko lau eraikuntzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Nafarroan kokatuta dauden enpresen jarduerak eragindako ingurugiro hondaketari aurrea hartzeko egin den dirulaguntzen kontzesioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Bihotz-txertaketak Nafarroako Ospitalean ez egitearen arrazoiei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Nafarroako Autopistaren bidesari berriak ezartzeari eta horren ondorioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Nafarroako Autopistari buruzko akordio berrian, erreserba eta leheneratze fondoan egoera eta eboluzioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Fidantza-gordailua bertan behera uzteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Hirigintza plangintzari buruzko udal planei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Bi urteko haurrak hartzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Baztan-Bidasoa ibaian, Elizondon, izandako kutsaguneari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Nagusientzako egoitza bat eraiki eta kudeatzeko proiektuaren txostenean Gizarte Ongizateko Zuzendari Nagusiak izan duen esku-hartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- “Emakumeak eta iraupen luzeko langabetuak, 40 urte baino zaharragoak eta 25 urte baino gazteagoak, lanean txertatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Programak” izeneko kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 1998-1999 ikasturtean aurrera jarraitu ezinik gelditu diren lanbide aukerei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Nafarroako Gobernuak Pablo Sarasate orkestrari egiten dion ekarpenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Pablo Sarasate Orkestrarako bazkide berriak bilatzeari eta beherapen eskaintzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Beren destinetik lekualdaturiko irakasleei egindako jakinarazpenei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Esako Urtegia zabaltzearekin Aragón ibaiaren eskuin aldeko ertzerako aurreikusten diren ureztalurrak Hidrologi Plan Nazionalean sartzeko Nafarroako Gobernuak emandako urratsei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Ureztalur berriak sortzeko eta daudenak hobetzeko egindako inbertsioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- RU 486 pilula erabili ahal izateko harturiko neurriei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- N-132 errepidean, San Martín Unxen parean, hasitako obrek Uxuen izandako eraginei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Ikasturte honetan hiru urteko ikasleen eskolatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Sare publikoko ospitaletan egiten diren organoen transplantei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Nekazaritzako elikagaiak kooperatiben bidez industrializatzea eta merkaturatzea bultzatzeko laguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Nekazaritzako elikagaiak kooperatibak ez diren enpresen bidez industrializatzea eta merkaturatzea bultzatzeko laguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Umetoki-lepoko minbizia aurrezaintzeko programak abiarazteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Arga ibaian, Antsoaingo udal dermio aldean, hilik aurkituriko arrainei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- “El Mirador” geriatrikoaren egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Emakumeen modulua jartzeko Iruñeko espetxea egokitzeko obrei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Elortz ibaian, Etxabakoitzen parean, hilik aurkituriko arrainei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- Aho-hortzetako arretari eta hori eskaintzeko moduari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
- Iruñeko espetxeko euskarako irakaslearen izendapenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- Zizur Nagusiko ikastetxe publikoko D ereduko irakasleei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).
- Gure Komunitatean dauden turismo informazioi-bulegoei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).
- 1999 urterako lan arlorako Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako inbertsioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (45. or.).
- Nafarroako Hizkuntz Eskolako leku ezari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (46. or.).
- 1999 urterako liburu-fondoak eguneratzeko aurreikuspenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (47. or.).
- “Sociedad Aguas de la Cuenca del Ebro, SA” sozietatearen bitartez obra hidraulikoak egiteko inbertsioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (48. or.).
- Zizur Nagusiko D ereduko lehen hezkuntzako hirugarren ikasturteko taldea destolesteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (49. or.).
- Bidezidorren sare nagusiaren egoera eta mantenimenduari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (50. or.).
- Eugi ondoko putzu batean gai kimiko pozoitsu bat isurtzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (50. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**1998ko abuztuaren 23an, Ultzama ibaian arrain hilak agertzeari buruzko galdera****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak 1998ko abuztuaren 23an, Ultzama ibaian arrain hilak agertzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 15ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1998ko abuztuaren 23an, Ultzama ibaian arrain hilak agertzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Hartutako ur laginen analisiak egin eta emaitzak jakinda, zein izan da arrainak hil dituen substantzia Arga ibaiaren aipaturako zatian? Produktua iraunkorra da edo diluitu eta kaltetutako eremuak leheneratuko direla segurua da?

Arrainak hil zituen isurketa poluitzailea Lantzeko Car-Velate, SAn sortu zen, euri-uren deposituak gainezka egitean, depositu horretara etengabe biltzen baitziren arto-siloko lixibiatuak euri-uren kolektorean barrena, araztegi hondakin-uren kolektoretik joan beharrean.

Isurketak, zama organiko handikoa baitzen, anoxia eragin zuen ibaian, baina ez iraunkorra, ze

leheneratzea bermaturik zegoen ibaiaren autoarazketaren eta diluzioaren bidez.

2. Produktuaren ezaugarrien arabera, zer izan da, industri hondakinen bat ala kaltetutako lekutik gertu dagoen beste instalazioren bateko beste hondakinen bat? Isurketa puntuala eta leku jakin batekoa izan al da?

Isurketa puntuala eta leku jakin batekoa izan da eta enpresa ohartzean bukatu da. Orditik aurrera, hustu egin ziren hondakin-urak nekazaritza-ureztaketaren bidez.

3. Nafarroako Gobernuak kalte ekologikoa larria izan dela uste al du? Zein datutan oinarritu da aurreko galderari emandako erantzuna?

Kalte ekologikoa larria izan da; izan ere, gertakariaren ondotik ibaian hartutako arrainen laginak ia amuarrainik ez dagoela eta ibaian egon ohi diren gainontzeko espezieak zeharo urritu direla erakutsi du.

4. Ba al daki Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak horrelako edo antzeko beste gertakaririk izan den Ultzama ibaian? Zeintzuk izan dira, zer eragin izan dituzte eta zerk eragin zituen?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ez du Ultzama ibaian halako gertakaririk izan delako berririk.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Industri jarduerak ingurugiroan duen eragina aurreikusi, zuzendu eta kontrolatzeko inbertsioetarako 1997ko dirulaguntzei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak industri jarduerak ingurugiroan duen eragina aurreikusi, zuzendu eta kontrolatzeko inbertsioetarako 1997ko dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 15ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Industri jarduerak ingurugiroan duen eragina aurreikusi, zuzendu eta kontrolatzeko inbertsioetarako 1997ko dirulaguntzei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer arautegi (foru lege, dekretu eta agindu) zaio aplikagarri kontusail horren erabilerari? Zer aurrekontu lerrok finantziatu zituen 184/1997 Foru Dekretuak emandako dirulaguntzak?

Aipatu 168/1997 Foru Dekretuaz gainera, Nafarroako Komunitatearen eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta

kontrolatzeko araubide orokorra arautzen duen ekainaren 8ko 8/1997 Foru Legea zaio aplikagarri.

Dirulaguntza horiek “Industria-Isuriak Minimizatu eta Tratatzeko eta Ingurugiro-Auditorietarako Dirulaguntzak” 11250-0 aurrekontu-lerroak finantziatu zituen.

2. Handitu al zen, foru agindu edo ebazpenen bidez, aurreko galderan aipatutako aurrekontu kontsignazioa 1997ko ekitaldian erabili den diru kopururaino? Baiezkoan, zein izan dira hasieran aurrekontuan agertzen zen kopurua eta azkenik erabili dena?

Hasierako aurrekontu kontsignazioa 50.000.000 pezetakoa izan zen, 153.208.150 pezeta egiteraino handitu zena. Horretarako, transferentziak egin ziren euren kontsignazioetan gerakinak zituzten bi lerrotatik. Transferentzia horiek Ingurugiroko zuzendari nagusiak onetsi zituen 1997ko azaroaren 26ko 3519 Ebazpenaren zein 1997ko abenduaren 19ko 3825 Ebazpenaren bidez.

3. Zeintzuk izan dira 1. artikuluko 2. puntuan agertzen diren mota bakoitzerako emaniko dirulaguntzak? Zera nahi da: dirulaguntza eskatu zen eguna, hori eskatu zuen enpresa edo erakunde onuradunaren izena, jarduketaren laburpena, eta jarduketa egiten den herriaren izena.

Ondokoak dira emandako dirulaguntzak:

ENPRESA	HERRIA	MOTA	1997ko DIRUL.	1998ko DIRUL.	Jarduketaren laburpena	ESK. EGUNA.	EMAN ZEN EGUNA
Calinsa		A	4.704.375		Hauts jaulkipenak gutxitzea	1996-04-03	1997-12-02
Agralco	Lizarra	A	25.919.906		Ur zikinen araztegia hobetzea	1996-12-31	1997-11-27
Magna	Zubiri	A	52.543.237		Hauts jaulkipenak gutxitzea	1997-07-31	1997-12-19
Magna 1996tik kobratzeke		A	2.552.581		Hauts jaulkipenak gutxitzea	1995-06-29	1997-12-31
Ucar 1	Ororbia	A	636.624		Edukiera bikoitzeko iragazkia ordeztzea	1996-12-24	1997-12-02
Ucar 3		A	2.501.159		Egosteko labeak hobetzea	1996-12-24	1997-12-02
Ucar 4		A	2.801.000		Hauts jaulkipenak gutxitzea	1997-09-30	1997-12-02
Aceros Moldeados de Lacunza	Lakuntza	B	12.000.000		Moldeaketarako hareak birziklatzea	1997-02-18	1997-12-02
Volkswagen	Arazuri	D	3.216.799		Ingurugiroaren kudeaketarako sistema ezartzea	1997-04-24	1997-12-02
Fagor Luzuriaga	Tafalla	A	2.567.118		Desmoldeatzeko linean hautsa hartzea	1997-05-22	1997-11-27

ENPRESA	HERRIA	MOTA	1997ko DIRUL.	1998ko DIRUL.	Jarduketaren laburpena	ESK. EGUNA.	EMAN ZEN EGUNA
Inabonos	Lodosa	A	5.931.923		Zenbait gunetan hautsa zurgatu eta iragaztea	1997-07-25	1997-11-27
BS Electrodomesticos	Villatuerta	D	1.901.095	3.834.696	Ingurugiroaren kudeaketarako sistema ezartzea	1997-07-28	1997-12-10
Vega Mayor	Milagro	D	1.040.000	2.170.000	Ingurugiroaren kudeaketarako sistema ezartzea	1997-07-30	1997-12-10
Koxka	Iruña	D	833.000	740.000	Ingurugiroaren kudeaketarako sistema ezartzea	1997-07-30	1997-12-10
Centrare	Muriera	D	420.000	1.020.000	Ingurugiroaren kudeaketarako sistema ezartzea	1997-07-31	1997-12-10
TRW	Iruña	D	9.421.151	2.002.400	Ingurugiroaren kudeaketarako sistema ezartzea	1997-07-31	1997-12-02
Ind. San Andres	Atarrabia	D	22.000		Ingurugiroaren kudeaketari buruzko ikastaro batera joatea	1997-07-23	1997-12-19
Ind. San Andres		A	3.963.492		Zaratak gutxitzea	1997-07-31	1997-11-28
Saprem	Arakil	D	1.027.500		Ingurugiroaren kudeaketarako sistema ezartzea	1997-06-06	1997-12-02
Norton	Berriobeiti	A y D	467.546		Hondakinen parkea hobetzea eta ingurugiro-auditoretza	1997-07-31	1997-12-02
Reciclauto Navarra	Iruña	C	2.456.500	6.722.500	Erabiltzen ez diren ibilgailuak deskutsatu eta birziklatzea	1997-08-12	1997-12-10
CanterasEchauri y Tiebas	Tiebas	A	4.705.002		Hauts jaulkipenak gutxitzea	1997-08-14	1997-12-10
Inquinasa	Iruña	A	7.065.042		Hondakinak erretzeko labea hobetzea	1997-03-18	1997-12-02
Inabonos Pamplona	Iruña	A	695.479		Hauts jaulkipenak gutxitzea	1997-10-08	1997-12-10
Consebro	San Adrian	D	2.137.000	5.990.000	Kontserben sektoreari buruzko azterlana	1997-06-06	1997-12-19
Viscofán S.A.	Kaseda	D	22.000		Ingurugiroaren kudeaketari buruzko ikastaro batera joatea	1997-07-23	1997-12-19
Hidro-Rubber S.A.		D	22.000		Ingurugiroaren kudeaketari buruzko ikastaro batera joatea	1997-07-23	1997-12-19
Aislaplas S.L.	Berriobeiti	D	22.000		Ingurugiroaren kudeaketari buruzko ikastaro batera joatea	1997-07-23	1997-12-19
Miasa	Iruña	D	22.000		Ingurugiroaren kudeaketari buruzko ikastaro batera joatea	1997-07-23	1997-12-19
GUZTIRA			151.617.530	22.479.596			

4. 7 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, jakinarazi al zaio Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari gertakariren bat, dirulaguntza jaso zuen proiektua modu aipagarrian aldatu duena? Baiezkoan, onartu al ditu espresuki Foru Komunitateko Administrazioak aipatutako aldaketak? Zehaztu espediente eta eginiko aldaketak.

Ez da administrazioari konpromiso erantsirik ekarriko dion aldaketa aipagarririk gertatu dirulaguntza jaso duten proiektuetan.

5. 1997ko ekitaldian, hartu al da aurrekontu konpromisorik hurrengo urteetarako? Baiezkoan, zera nahi da: espedienteak, zenbatekoak eta urte bakoitzerako konpromisoa.

Agralco enpresak 1997rako proiektaturiko inbertsioa ez zen guztiz bete, eta hortaz, 1997ko kontuetan 22.206.042 pezeta geratu ziren, hau da, egindako inbertsioari zegokion dirulaguntzaren zatia. Emandako dirulaguntzaren gainontzekoa, 3.713.864 pezeta alegia, 1998ko ekitaldirako hitzartu da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Nafarroan ur jabari publikoan kokaturiko lau eraikuntzari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Nafarroan ur jabari publikoan kokaturiko lau eraikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 15ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikaren Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak galdera egin du ur jabari publikoan kokaturiko lau eraikuntzari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du Sepronak salaturiko lau eraikuntza horien berri? Hala bada, zeintzuk dira?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko erregistroak aztertu eta ez dugu aurkitu galderan aipatua bezalako salaketarik; eta, beraz, ez da inolako jarduketarik hasi.

2.- Ingurugiro Departamentuak jarduketaren bat aurreikusi al du horri buruz? Hala bada, zeintzuk?

Galderan aipatzen den arazoan esku-hartzeko edo laguntzeko eskatzen bazaio Ingurugiro Departamentuari, aholkuak eta laguntza emanen ditu, administrazio-erakundearen arteko harremanetan ohikoa denez, baina alde aurretik eskaera bidezkoa den egiaztatuko du.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Nafarroan kokatuta dauden enpresen jarduerak eragindako ingurugiro hondaketari aurrea hartzeko egin den dirulaguntzen kontzesioari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Nafarroan kokatuta dauden enpresen jarduerak eragindako ingurugiro hondaketari aurrea hartzeko egin den dirulaguntzen kontzesioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 17an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroan kokatuta dauden enpresen jarduerak eragindako ingurugiro hondaketari aurrea hartzeko egin den dirulaguntzen kontzesioari buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

1. Programaren izena: “Nafarroako Garapen Teknologikorako Plana”.

– Aurrekontuko kontusaila: “Kalitatea, diseinua eta lehiakortasuna hobetzeko plana”.

– Kode organikoa, ekonomikoa eta funtzionala: 81110-4709-5424

– Lerroak:

1997ko aurrekontua:

- 29320-3 Feder-eko eskualderako
- 29330-0 Feder-ekoa ez den eskualderako

1998ko aurrekontua:

- 29910-7 Feder-ekoa ez den eskualderako
- 29920-4 Feder-eko eskualderako

– Bi lerroetako kreditu erabilgarria, biak batuta, 202 milioi pezetakoa izan da guztira, ekitaldi bakoitzean (1997an eta 1998an).

3. 1997ko aurrekontua itxi eta ez da aldaketarik izan.

2, 4, 5, 6 eta 7. galderak direla eta, ondoren datoz emandako laguntzen eskabideak edo tramitatzen ari direnak, enpresa bakoitza kontuan izanik (guztiak ere I. eranskinean). Ez dira sartu programen izenak, enpresen informazio konfidentziala islatu baitezakete.

Iruñean, 1998ko urriaren 13an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

ENPRESA	SARRERA EGUNA	ERABAKIAR ENEGUNA	EMANDAKOIA	EGOERA	ONARTUTAKO AURREKONTUA	LERROA	EKITALDI HITZARTUA
AGRALCO, S.COOP.	1996-08-01	1996-12-20	2.940.000	Erabakia eta ordaindua	11.760.000	29320-3	1997
P.R.A.O.M.S.A	1996-08-26	1996-12-20	591.875	Erabakia eta ordaindua	2.367.500	29330-0	1997
S.C.L. RIBERAL	1997-07-29	1997-12-19	1.333.100	Erabakia eta ordaindua	5.332.400	29910-7	1998
CENTRACERO, S.A.	1997-08-01	ERABAKITZEKO	720.000	Erabakitzeke	2.880.000		
VISCOFAN, S.A.	1997-07-23	1997-11-24	690.000	Erabakia eta ordaindua	1.725.000	29920-4	1998
REVESTIMIENTOS MOLDEADOS, S.A.	1997-09-24	1997-12-19	159.563	Erabakia eta ordaindua	638.250	29330-0	1997
CEMENTOS PORTLAND, S.A.	1997-09-26	1997-12-19	818.250	Erabakia eta ordaindua	3.273.000	29920-4	1998
VISCOFAN, S.A.	1997-09-25	1997-12-19	1.094.827	Erabakia eta ordaindua	4.379.306	29920-4	1998
JUAN BURGO PAMPLONA, S.A.	1997-09-30	1997-12-19	875.000	Onartua eta ordaintzeko	3.500.000	29910-7	1998
INDUSTRIAS PEVI, S.A.	1997-09-30	1997-12-19	153.575	Erabakia eta ordaindua	614.300	29920-4	1998
INDUSTRIA NAVARRA DE CABLES ELÉCTRICOS, SA	1998-05-29	ERABAKITZEKO	0	Erabakitzeke	123.847		
AGRALCO, S.COOP.	1998-05-29	ERABAKITZEKO	0	Erabakitzeke	2.200.000		
DANA EQUIPAMIENTOS, SA	1998-05-29	ERABAKITZEKO	0	Erabakitzeke	2.424.000		

## **Bihotz-txertaketak Nafarroako Ospitalean ez egitearen arrazoiei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentarioandreak bihotz-txertaketak Nafarroako Ospitalean ez egitearen arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 29ko 73. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 17an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Eusko Alkartasuna” Parlamentuko Taldeko Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak galdera egin du bihotz-txertaketak Nafarroako Ospitalean ez egitearen arrazoiei buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1. Bihotz-txertaketa edo trasplanteak Nafarroako Ospitalean ez egiteko arrazoiaren azalpena.

Ondorengo arrazoiengatik ez dira egiten:

a.- “Zentro efektua” deitutakoa dela-eta; izan ere, gure Komunitateko gaixo nafarrek jaso izan duten kalitateari eutsi nahi zaio.

b.- Talde bat ezin daiteke entrenatuta egon, urtean 3-4 bihotz-trasplante eginda.

c.- Bihotz-trasplanteen kostua garestituko litza-teke.

2. Bihotz-trasplanteak ospitale horretan egin ahal izateko zer baldintza bete beharko liratekeen.

a.- Prozesuan parte hartzen duten zerbitzuetan langile gehiago egotea, guardia lokalizatuak, etab.

b.- Esperientzia, prozesu osoan aritzeko (pres-trasplantea, trasplantea eta transplantatuen jarraipena) entrenatutako medikuen eta erizainen taldeak.

3. Nafarroako Ospitaleak horietako zein ez duen betetzen, jakin bai baitakigu bertako langile-riaren gaitasuna handia dela.

Aurreko erantzunean zehaztutako baldintzak; bestalde, horiek ez dute zerikusirik Nafarroako Ospitaleko pertsonalari aitortzen diogun gaitasun handiarekin.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 14an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Nafarroako Autopistaren bidesari berriak ezartzeari eta horren ondorioei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Nafarroako Autopistaren bidesari berriak ezartzeari eta horren ondorioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 20an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Autopistaren bidesari berriak ezartzeari eta horren ondorioei buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna:

Tarifa berriak 1997ko abenduaren 16an sartu ziren indarrean. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da lehendik, irailaren 6tik hain zuzen, ibil-



gailu mota ezberdinen arabera aplikatu beharreko BEZaren korritua aldatu zela, eta aldaketa horrek ibilgailu arinek ordaindu beharreko bidesariaren halako jaitsiera bat ekarri zuela berekin: aplikatu beharreko korritua % 16tik % 7ra jaitsi zen. Gero, 1998ko martxoaren 31n, tarifen lehenbiziko eguneratzea gertatu zen.

Ibilgailu arinentzat % 25ekoa eta ibilgailu astu-entzat % 30ekoa izan da 1997ko abenduaren 16tik aurrera aplikatu den jaitsiera. Nafarroako Autopistan izaten den trafikoaren osaketa ikusirik, bidesarien jaitsiera % 25,63 izan da, batez beste-ko ponderatua ginez.

Prezioen jaitsiera hori aplikatu izan ez balitz, uste dugu trafikoak Iparraldeko Eskualdeko sektorearen gainerako enpresetan (Avasa, Europistas, Eurovias) izandako bilakaera bera izanen zuela

URTEA	1995	1996	Aurreko urteko %	1997	Aurreko urteko %	1998 (*)	Aurreko urtea
IMD	5.139	5.150	0,21	5.605	8,83	6.741	20,27

Lehenbiziko puntuan azaldu dugun kalkulu-irizpidea 1998ko ekitaldi osoari aplikatuz gero, 1998ko dirusarrerak 3.490 milioi pezetakoak (BEZik gabe) izanen ziren. Azken aurreikuspenen arabera, ordea, 2.880 milioi pezeta (BEZik gabe) ingurukoak dira.

610 milioi pezetako aldea, tarifen jaitsieraren ondorio garbiak berekin dakarren urteko jaitsiera da.

Dirusarreraren batez besteko BEZa (% 7 eta % 16, ibilgailu motaren arabera) % 9 da. Bildutako BEZaren jaitsiera, ordea, ondokoa da:  $610 \times \% 9 = 55$  milioi pezeta.

Kontuan hartzen baditugu autopistaren tarte ezberdinetan neurtutako trafiko mailak eta haren korridoreko aurrerago adieraziko ditugun errepideetan neurtu ditugunak, bidesarien jaitsierak bai ekarri du errepideko trafikoaren zati handi bat autopistara pasatzea.

Esate baterako, Tuteratafalla tartean, 1998an trafikoaren handitzea % 6,62 izan bazen korridorean, autopistaren trafikoak % 17,67 egin du gora; errepideetako trafikoak, ordea, % 1,66 igo da.

Tafalla-Iruña bide-tartean, 1998an % 5,48ko igoera izan da korridoreko trafikoan; autopistako trafikoak, ordea, % 21,69 egin du gora. Errepidean, berriz, % 4,60 jaitsi da trafikoak.

Azkenik, Iruña-Irurtzun tartean, korridoreko trafikoak 1998an % 9,82 egin badu gora, autopistako trafikoak % 21,44 egin du gora; errepideko trafiko-

hemengoak ere, alegia, % 9 inguru (abuztuko datuak dira).

A) AUDENASAREN dirusarrerak	1997ko urtarrila-abuztua	2.103,6 milioi pezeta.
B) Espero ziren dirusarrerak (jaitsierarik gabe)	1998ko urtarrila-abuztua	2.327 milioi pezeta.
C) Lortutako dirusarrera errealak	1998ko urtarrila-abuztua	1.912,7 milioi pezeta.
Dirusarreraren gutxitzea, tarifak (B eta C) gutxitzearen ondorioz		414,3 milioi pezeta.

Ondotik agertzen dugun koadroan, bidesaria ordaindu beharreko trafikoaren urteko IMD batez bestekoa adierazi dugu, 1995, 1996 eta 1997 urteetako; halaber, aurtengo abuztura bitarteko datuak eman ditugu:

IMD urteko batez bestekoa:

an, berriz, halako gelditze bat gertatu da: % 0,94 egin du gora.

Ondotik ematen dugun koadroan, autopistan eta haren korridoreko errepideetan izandako trafikoak azaldu dugu:

Tutera eta Tafalla arteko autopista tartea

Marcilla-Tafalla tartean autopistan neurtutako trafikoak eta NA-121 errepidean (32. aforo-estazioan) eta NA-115 errepidean (324. aforo estazioa) 1996, 1997 eta 1998 urteetan neurtutako trafikoak alderatu ditugu.

	1996	1997	Aurreko urteko %	1998 (*)	Aurreko urteko %
Autopista	3.883	4.172	7,44	4.909	17,67
NA-121 errepidea	5.633	6.007		6.095	
NA-115 errepidea	3.341	3.274		3.340	
Errepideetan, guztira	8.974	9.281	3,42	9.435	1,66
Korridorean, guztira	12.857	13.453	4,64	14.344	6,62

Tafalla eta Iruña arteko autopista tartea

Tiebasko bidesarian neurturiko trafikoak eta NA-121 errepidean neurtutakoak alderatu dugu (30. aforo estazioa).

1998ko datuak abuztukoak dira.

	1996	1997	Aurreko urteko %	1998 (*)	Aurreko urteko %
Autopista	5.831	6.382	9,45	7.766	21,69
NA-121 errepidea	10.580	10.264	-2,99	9.792	-4,60
Korridorea, guztira	16.411	16.646	1,43	17.558	5,48

**Iruña eta Irurtzun arteko autopista tarte**

Sarasako ordainleku eta NA-240 errepidean (50. aforo estazioa) neurturiko trafikoa alderatu ditugu.

	1996	1997	Aurreko urteko %	1998 (*)	Aurreko urteko %
Autopista	8.131	8.949	10.06	10.868	21,44
NA-240 errepidea	10.926	11.719	7.26	11.829	0,94
Korridorea, guztira	19.057	20.668	8.45	22.697	9.82

(\*) 1998ko datuak abuztura bitartean izandako urteko batez bestekoei dagozkie. Errepideetako aforo estazioetako datuak telefonoz lortu ditugu Nafarroako Gobernuako Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Bide Zerbitzuan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 15ean

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

## Nafarroako Autopistari buruzko akordio berrian, erreserba eta leheneratze fondoaren egoera eta eboluzioari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Nafarroako Autopistari buruzko akordio berrian, erreserba eta leheneratze fondoaren egoera eta eboluzioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 20an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Autopistari buruzko akordio berrian erreserba eta leheneratze fondoaren egoera eta eboluzioari buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna:

Erreserben bilakaera 1996 eta 1997 ekitaldian zehar.

1996ko ekitaldia zela eta, Akziodunen Batzar Nagusiak, 1997ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, urteko kontuak onetsi zituen eta aho batez erabaki 1996ko ekitaldiko azken emaitza, osorik, aurreko urteetako emaitza negatiboak konpentsatzeko erabiltzea.

Horren ondorioz, Sozietatearen kontabilitatean hala idazten da eta, beraz, ez dago zuzkidurarik

inolako erreserbarantz (ez legalentzat, ez berezientzat, ez borondatezkoentzat...).

1997ko ekitaldirako, Akziodunen Batzar Nagusiak, 1998ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, 1997ko emaitzen aplikazioa onetsi zuen:

- Aurreko urteetako emaitza negatiboak konpentsatzeko: 3.013.037 PTA.
- Legezko erreserbarako: 53.177.581 PTA.
- Leheneratze Fondoaren osagarri den erreserbarako: 77.896.297 PTA.
- Soberakinen erreserba borondatezkoa: 233.688.892 PTA.

Horren arabera, Sozietatearen kontabilitatean 1998an idazpenak egin ziren, zuzkidura horiek ezarriz erreserbetan. Beraz, hauek dira erreserben kontuetan egun dauden saldoak (guztira 364.762.770 pezeta dira).

1998an erreserbetarako zer zuzkidura egitea aurreikusi den.

Autopistas de Navarra, SAn indarrean dagoen Plan Ekonomiko Finantzarioa 1997ko abenduaren 10ean onetsi zen. Erreserba legalerako zuzkidura 1998an 24 milioi pezetakoa izanen dela aurreikusi da Plan horretan.

Berrikitan, 1998ko ekitaldi ekonomikoaren benetako bilakaerara kontuan izan eta beste aurreikuspen batzuk egin dira. Bestalde, 1997ko abenduaren 10ean Nafarroako Gobernuaren, Empresa Nacional de Autopistas, SA eta AUDENASaren artean adostutako hitzarmenean, laugarren puntuan zehazten da zer egin mozkinekin, hots, PEFn banatzeko direla zehaztutako mozkinnez gainekoekin. Beraz, horri guztiari eutsiz,

oraingo aurreikuspenetan ondorengo zuzkidurak kalkulatu dira 1998rako:

- Legezko erreserba: 50 milioi pezeta
- Leheneratze Fondoaren osagarri den erreserbarako: 59 milioi pezeta
- Borondatezko erreserba: 177 milioi pezeta

Leheneratze Fondoaren bilakaera.

Autopistas de Navarra, SAK urtero jartzen du zenbateko bat Leheneratze Fondoan, emaitza positiboak izan ziren lehen ekitalditik aurrera. Lehen zuzkidura 1995ean egin zen: lortutako emaitza gordinaren % 95, orduan indarrean zegoen Plan Ekonomiko Finantzarioari jarraiki.

Gaur arte egindako zuzkidurak honakoak dira (zenbatekoak milioiak dira):

	URTEA	Urteko zuzkidura	Metatutakoa
	1995	490,9	490,9
	1996	1.059,7	1.550,6
	1997	800	2.350,6
(Aurreikusitakoa)	1998	466	2.816,6

PEFn aurreikusi den erreserben bilakaera.

Egungo Plan Ekonomiko Finantzarioak, 1997ko abenduaren 10ean onetsiak, arauak agindu bezala, mozkinen % 10 Legezko Erreserban sartu behar dela xedatzen du. Kontzesioaldi osoan eta ekitaldi guztietan egin da hori, legeak ezarritako portzentajea iritsi ez denean (kapitalaren % 20).

Bestalde, PEF honek agintzen du beste erreserba batzuetan sartzeko (Leheneratze Fondoaren osagarri den Erreserba, Soberakinen erreserba borondatezkoa, Estatutu-erreserba edo beste erreserba borondatezko batzuk), PEFn bertan adierazitako emaitzak baino hobeak lortzen badira (hala gertatu zen 1997ko ekitaldian eta, ziurrenik, hala gertatuko da 1998an ere).

1997ko abenduaren 10ean sinatutako hitzarmeneko laugarren puntuan adierazten da mozkinak, hots, PEFn banatzeko direla zehaztutako mozkinen gainekoak, nola sartu erreserbetan, 1998-2014 bitartean, bi urte horiek ere barruan direla. Dena dela, 1997an bertan ere aplikatu zen

irizpide hori eta, hala, gorago adierazi bezala sartu ziren mozkinak erreserbetan.

2015. urtean, Leheneratze Fondoaren osagarri den Erreserbako saldoa Leheneratze Fondoan dagoenari gehituko zaio.

Urteko irabazia kapitalaren %10etik gorakoa denean egiten dira estatutu-erreserbetako zuzkidurak. PEFen azaldutakoaren arabera, halakorik ez da gertatuko 2023 urtea arte.

Erreserben 1995-2029 tarteko bilakaera erantzun honi erantsitako taulan agertzen da.

PEFn aurreikusitako bilakaera: Leheneratze Fondoa sortzea ekarri zuten helburuak beteko ote diren.

Kontabilitate Plan Orokorrek definitu legeaz, Leheneratze Fondoaren helburua da aktibo errebertigarri baliu ekonomikoa berrematea, kontuan hartuz kontzesioan ezarritako leheneratze-baldintzak. Kontzesioaren amaieran, aktibo errebertigarraren kontabilitate-balioaren pareko izan beharko da Leheneratze Fondoan den zenbatekoa. Elkarte Kontzesiodunak, kontzesioan zehar, zuzkidurak egin beharko ditu fondo honetan, ustiapen-kontuaren kargura, harik eta errebertitu beharreko aktiboen kontabilitate-balio garbia lortu arte.

AUDENASAREN Plan Ekonomiko Finantzarioa lantzean, kontuan izan zen baldintza hori kalkulak egiterakoan.

Kontzesioan zehar urtero egindako zuzkiduren kopurua, guztira, 56.217 milioi pezetakoa izanen da 2029. urtean, eta inbertsio errebertigarraren balio garbia 56.217 milioi pezetakoa izanen da, 2029. urteari dagokion egoera-balantzearen arabera. Beraz, Leheneratze Fondoaren baldintza-xedea bete eginen da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 15ean

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

(Oharra: Aipatu eranskina Foru Parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

## Fidantza-gordailua bertan behera uzteari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak fidantza-gordailua bertan behera uzteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 29ko 73. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 20an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Nueva Izquierda”ko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Foru Komunitateko fidantza-gordailua bertan behera uzteari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Ea Nafarroako Gobernuak behin betiko uko egin dion Foru Komunitatearen aldekoa den obligaziozko bere fidantza-gordailua arautzeari.

Nafarroako Gobernuak 1998ko abuztuaren 3an onetsitako Foru Dekretuak ezarri zuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ez duela izanen fidantza-gordailurik, hots, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 36. artikuluari jarraiki fidantza gisara erazten diren zenbatekoen gordailurik. Beraz, baiezkoa da galderaren erantzuna.

2.- Ea erabaki horrek esan nahi duen, joan den Maiatzean beste galdera bati erantzunez adierazitakoaren arabera, gai hau arautzen ez den bitartean Lan Ministerioaren 1949ko Martxoaren 11ko Dekretuan ezarritakoak izanen duela indarra, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/94 Legeko Xedapen Indargabetzaile bakarrak ezarritakoari jarraituz. Eta, aurrekoaren arabera, nork hartuko du bere gainean gordailuen erantzukizuna Nafarroan?

Azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 36. artikulua behartzen du errentamendu-kontratuak direla-eta fidantzak eratzera. Lege horretako Hirugarren Xedapen Gehigarriak autonomia erkidego bakoitzaren esku uzten du, administrazioa aurrean dela, fidantza-deposituak eratu beharra ezarri ala ez. Nafarroako Foru Komunitateak fidantzen gor-

dailuzaina ez izatea aukeratu zuenez, 36. artikuluko horretako 5. paragrafoan aipatzen den bermeen hitzarmena eta eratzea nahiz itzultzea errentatzailearen eta errentariaren arteko harremanen esparrukoak dira. Horrek ez dakarkio kalterik aipatutako artikuluko ezartzen duena bete beharri.

3.- Zer arrazoi dela-eta eman duen Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko fidantza-gordailua bertan behera uzteari buruzko Foru Dekretu hori.

Errentamenduari buruzko 1994ko Legearen arabera, autonomia erkidego bakoitzak hautatzeko eskua du, errentamenduetako fidantzen gordailua ezarri edo deuseztu. Nafarroako Foru Komunitatean uste izan da, etxebizitzak eta lokalak errentan eman eta hartzea negozio pribatua denez, Administrazio Publikoa ez dela izan behar interbentzionistaegia.

4.- Zeintzuk diren ezabaketa horren ondorioak errentatzaileentzat.

Nafarroako hiri-finken errentamendu-kontratuei dagozkien fidantzak, aurreko legediari jarraiki gordailatutakoak, itzuli egingen ditu Nafarroako Foru Komunitateak, kontratu horiek amaitu ahala.

Gordailua deusezten duen Foru Dekretuak indarra hartu ondoren, errentatzaileak eta errentariak erabakiko dute, negozio pribatu hori gauzatzeko, legearen esparruaren baitan fidantzak nola eratu.

5.- Horrelako erabaki bat orain zergatik hartzen den, 29/1994 Legearen bitartez ahalmen hori eman eta lau urte beranduago.

Hiri Errentamenduei buruzko 1994ko Legeak ez die autonomia erkidegoei eperik ezartzen gai hau arautzeko. Kontuan izan 1997an hartu zuela indarra Hiri Jabetzaren Ganbara (hots, fidantzen gordailua kudeatzen zuen entitatea) kentzeari buruzko Foru Dekretuak. Aipatutako Ganbara Foru Administrazioak bereganatzean, uste izan da bidezko dela orain gai horren inguruan erabakitzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 16an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Hirigintza plangintzari buruzko udal planei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak hirigintza plangintzari buruzko udal planei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 6ko 76. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 20an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak galdera egin du hirigintza plangintzaren Nafarroako egoerari

buruzko hainbat kontuez. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

Honekin batera doaz Nafarroako udalen zerrendei buruzko laukiak, egindako galderen araberakoak. Lauki bakoitzaren goiburuan agertzen dira galderari dagokion zenbakia eta haren edukia laburtzen duen izenburua.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 23an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

(Oharra: Aipatu laukiak Foru Parlamentarioen esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

## **Bi urteko haurrak hartzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak bi urteko haurrak hartzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 21eko 70. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 20an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak galdera egin du bi urteko haurrak hartzen dituzten itunpeko zentroeiei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.) Hezkuntza eta Kultura Departamentuak haur hezkuntzako bigarren zikloa emateko luzatutako administrazio-baimenak ez dakar bi urteko haurrak hartzea. Gainera, ez da baimenik luzatu haur hezkuntzako lehen zikloa ezartzeko. Hala ere, 1970eko Hezkuntzaren Lege Orokorren babesean eta haren 13. artikuluan zehaztutako izaerarekin luzatutako haurtzaindegiendako baimenek legez indarrean dirautela ulertu behar da.

2.) "Etxekoaren antzeko bizimodua" (HLOko 13. art.) izateko moduan eratu ziren haurtzainde-

giak. Horregatik hain zuzen ere ez zuten, HLOk ezarritako gainerako ziklo eta etapetan ez bezala, hezkuntza curriculumik. Haurtzaindegiak erregulatzeko ardura, neurri handi batean, toki entitateen eta osasun zein gizarte ongizate administrazioen esku utzi zen, hots, segurtasun eta higiene neurriak hartu, etapa diruz sustengatu eta jarraipen espezializatua egiteko arduradunen esku.

Horrela, bada, hezkuntz ikuskaritzaren zeregin-a gainbegiratzera mugatzen zen, eta ez du inolaz ere unibertsitate bitarteko gainontzeko etapetako jarraipen zehatzik egiten, haiek estu-estu lotu behar zaizkielako hezkuntz curriculumei zein estatu mailako gutxieneko eskakizunei.

3.) Aurreko erantzunetan ihardetsi da. Alta, adin horretakoak eskolatzea ez da derrigorrezkoa, eta beraz, legez posible da bi urteko haurrak zaintzea baldin eta tokiak higiene zein osasun baldintzak eta tokian tokiko ordenantza zein sektoreko arau aplikagarrietan ezarritakoak betetzen baditu, nahiz eta haurtzaindegi edo haur hezkuntzako zentro gisa onartu gabe egon.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 16an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## Baztan-Bidasoa ibaian, Elizondon, izandako kutsaguneari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Baztan-Bidasoa ibaian, Elizondon, izandako kutsaguneari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 21eko 70. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 21ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Baztan-Bidasoa ibaian, Elizondon, izandako kutsaguneari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak aipatu den gertakariaren berri izan zuenetik? Nola izan zuen Foru Komunitateko Administrazioak aipatutako kutsaguneari berri?

Baztan ibaian, Elizondon, izandako kutsaguneari buruzko berriak Elizondotik bertatik jaso eta Ingurugirozaintzako langileak hara joan ziren. Urak emari handia zeramala eta uher samar zein apar askorekin jaisten zirela ikusi zuten, ordu batzuk lehenago euri ugari erori zelako.

2. Ba al daki Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak horren zergatia? Isuriak izan al dira edo beste zerbait? Zein lekutan izan zen zehazki kutsagunea? Zer ikerketa egin ditu Nafarroako Gobernuak kutsaguneari buruz?

Haren ezaugarriak ikusita, zergatia hondakin organikoen isurketa puntual bat, seguruenik abeltzaintzako ustiategi bateko mindena izan daiteke, edo, bestela, hondakin horien dosi handiegiekin ongarrituriko finketako lur-azaleko isurketa.

3. Ondorio larriak eragin dituela uste al du Nafarroako Gobernuak? Kutsaguneari arrainei eragin al zien? Zein da, orain, ibaiaren egoera?

Ondorioak ez dira larriak izan, ez dute arrain-fauna ukitu. Ibaiaren egoera normala da.

4. Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak horrelakoak berriz ere ez gertatzeko?

Halako egoerak ekiditeko egin beharreko jarduketak egin ohi direnak dira, alegia, finkak ongarrizteko lanak eta isurketa irregularrak antzeman eta zaintzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria, Yolanda Barcina Angulo

## Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 21eko 70. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 21ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Zaraitzu Ibarrean eginiko jarduketei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Oihan hobekuntzak egiteko dirulaguntzak ematen jarraitzeko edo horiek hobetzeko zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak? Zer aurrekonturekin? Zein udal dermiontan? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

Ondokoak izan dira Zaraitzu Ibarrean oihan hobekuntzak egiteko inbertsioak eta Nafarroako Gobernuak emaniko dirulaguntzak:

	Inbertsioak, PTAtan	Dirulaguntzak, PTAtan	Egunsarien kopurua	Ha
1996 urtea	33.429.729	28.427.686	3.183	444
1997 urtea	35.188.382	20.184.399	3.352	534
1998 urtea (aurreikuspena)	61.650.000	47.724.000	5.767	780

Oihan hobekuntzak egiteko lanak Administrazioak –mendien jabe diren entitateek– egin ditu.

Oihanak kudeatzeari loturiko azpiegituretan egiteko diren jarduketei dagokienez, ondokoak izan dira, haietarako dirulaguntzei buruzko xehetasunekin:

	Inbertsioak, PTAtan	Dirulaguntzak, PTAtan
1996 urtea	29.910.116	26.919.105
1997 urtea	13.602.973	6.100.611
1998 urtea (aurreikuspena)	82.869.932	35.556.226

Esku-hartzeak ondoko entitateen mendietan izan dira: Otsagabia, Ezkaroze, Itzaltzu, Espartza-Zaraitzu, Gorza, Sartze, Igari, Ibiltzieta, Orontze, Jaurrieta eta Zaraitzu Ibarreko Batzarrea.

Nafarroako Gobernuak uste du erabat beharrezkoa dela mendietan oihangintzako lan horiek egiten jarraitzea, batez ere ondokoak kontuan harturik:

1.- Masak hobetzea oihangintza tratamenduen bitartez.

2.- Zaraitzu Ibarrean aldi baterako lana sortzea.

2. Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak Zaraitzu Ibarreko oihan sektorean lana sor dadin zuzpertzeko? Izan al da emaitza zehatzik? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

Aurreko erantzunean adierazi dugun bezala, beharrezkoa da lan horiekin jarraitzea; izan ere, besteak beste, lagungarriak gertatzen dira enplegua sortzeko, eta abeltzaintzako, nekazaritzako, eta berriagoak diren turismoko dirusarreraren osagarri ere suertatzen dira. Oihangintzako enpleguen batez besteko aldia 3-4 hilekoa da.

Halaber, zenbait lan sozietate anonimo ere sortu da; sozietate horiek, kontraten bidez, oihangintza lanak hartu izan dituzte Zaraitzu Ibarretik kanpo ere. Batzutan, enpresa horietako batek oihan aprobetxamenduak zuzenean erosi ditu, enkate publikoan.

Arestian azaldutakoak direla eta, jarraitu egiten dugu jarduketa horiek egiten.

3.- Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak mendien antolamendua berraztertzeko? Zer aurrekonturekin? Zein udal dermiontan? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?



Azken garai hauetan ondokoetan egin dira Antolamendu Proiektuen Azterketak:

MENDIAK	NORENAK	SZENBAT HA.	URTEA
La Cuestión	Zaraitzu Ibarreko Batzarrea	1.274	1993
Irati	Zaraitzu Ibarreko Batzarrea	5.067	1996
Ezkaroze	Ezkaroze	866	1997
Jaurrieta	Jaurrieta	1.278	1997
Espartza-Zaraitzu	Espartza-Zaraitzu	774	1997
Orontze	Orontze	357	1997
Ibiltzieta	Ibiltzieta	403	1997

Guztira, 10.019 Ha-tan jardun da; inbertsioa, berriz, 54.708.768 PTA-koa izan da.

Egiteko dauden azterketak denbora gutxi barru burutzea aurreikusita dago, bai eta Zaraitzu Ibarreko mendi guztietako kudeaketa-plan teknikoak egitea ere.

4.- Aipatu bezala, Zaraitzu Ibarrean, eremu babestuak edo naturguneak deklaratzegatik, zenbait toki entitatek mugatuak dituzte erabilerak. Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak, kalte-ordainak emateko, hori dela-eta? Zer aurrekonturekin? Zein udal dermiontan? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

Zaraitzu Ibarrean dagoen babesgune bakarra Lizardoiaiko Erreserba Integrala da, La Cuestión mendian.

Nafarroako Foru Komunitateak mendi hori Zaraitzu Ibarreko Batzarreari 1991ko martxoaren 16ko Foru Legearen bidez -haren eskubide, karga eta jabetze guztiekin- laga zionerako, Lizardoiaiko Erreserba Integralaren halakotzat aitortuta zegoen.

1997ko otsailetik aurrera, ondoko jarduketak egin ditu Zaraitzu Ibarrek:

1. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak eta Zaraitzu Ibarreko Batzarreak sinaturiko lankidetzaren hitzarmena, ekainaren 14tik urriaren 4ra bitartean Irati zaindu eta garbitzeko. 3.691.232 pezetako kostua izanen du Departamentuarentzat; kostu hori 1997ko aurrekontuko "Naturguneak babesteko eta ibaiak lehenertzeko hitzarmena" izeneko 312110-7600-4421 kontusailaren kargura (11550-0 lerroa) finantzatuko da.

2. Ingurugiro Zuzendari Nagusiaren 1997ko apirilaren 4ko 964 Ebazpena; haren bidez, Otsagabia-Iltzaltzuko ehiza barrutiak 1997an kudeatzeko kontratazio espedientea onetsi zen. Guztira, 4.500.000 pezetako gastua baimendu zen.

3. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak eta Zaraitzu Ibarreko Batzarreak sinaturiko lankidetzaren hitzarmena, ekainaren 13tik urriaren 13ra bitartean Irati zaindu eta garbitzeko. 4.400.496 pezetako kostua izanen du Departamentuarentzat; kostu hori 1998ko aurrekontuko "Naturguneak babesteko eta ibaiak lehenertzeko hitzarmena" izeneko 31200-7600-5331 kontusailaren kargura (11730-0 lerroa) finantzatuko da.

4. 1997ko apirilaren 4ko 1183 Ebazpena; haren bidez, Otsagabia-Iltzaltzuko ehiza barrutiak 1998an kudeatzeko kontratazio espedientea onetsi zen. Guztira, 4.500.000 pezetako gastua baimendu zen.

5. Otsagabiako Interpretazio Zentroaren mantentze gastuek 11.227.000 pezeta egiten dute.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza: Yolanda Barcina Angulo

## **Nagusientzako egoitza bat eraiki eta kudeatzeko proiektuaren txostenean Gizarte Ongizateko Zuzendari Nagusiak izan duen esku-hartzeari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak nagusientzako egoitza bat eraiki eta kudeatzeko proiektuaren txostenean Gizarte Ongizateko Zuzendari Nagusiak izan duen esku-hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 21eko 70. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 21ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nagusientzako egoitza bat eraiki eta kudeatzeko proiektuaren txostenean Gizarte Ongizateko Zuzendari Nagusiak izan duen esku-hartzeari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz emandako erantzuna:

1. Zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia Gizarte Ongizateko Zuzendari Nagusiaren esku-hartzeari buruz, izan ere, idazki ofizial baten bidez bidali baitio Udalari sozietate pribatu jakin baten aldeko txostena, hirugarren adinekoentzako egoitza bat eraiki eta kudeatzeko proiektua dela eta?

2. Goi kargu horrek aipatu enpresaren aldeko gomendioa egin zuen, gomendatutako enpresa pribatuaren sozietate nagusiaren Administrazio Kontseiluko kontseilari eta lehendakariorde izanda ere. Nafarroako Gobernuak zer irizten dio horri?

3. Zein neurri hartu behar ditu Nafarroako Gobernuak Gobernuko goi kargu batek aldi berean eginkizun publikoetan eta interes pribatuko kudeaketa lanetan izan duen ustezko parte-hartze horri buruz, gure iritziz goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Legea urratzen baitu?

Foru Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordeak 1997ko ekainaren 3an onetsi zuen Plan Gerontologikoa. Bada, hura garatzeko abenduaren 1eko 392/1997 Foru Aginduaren bidez, Iruñe-

rrian zaharretxeak eraikitzeke batzorde aholkue-maile bat eratu zen (foru agindu horren kopia 1. eranskin gisa erantsi zaio erantzun honi). Batzorde haren lana hauxe zen: jasotako proposamenak konparatu eta irizpen bat egitea.

Jasotako zortzi ekimenen asmoa Iruñean (Donibaneko La Vaguadako parkea), Zizur Nagusian, Ziur Txikian, Burlatan (bi ekimen), Atarrabian eta Mutiloagoitin (bi ekimen) zaharretxeak eraikitzea zen.

Udalek eskumen garrantzitsuak dituzte hirigintza arloan, eta hortaz, beharrezkoa da haiek ados egotea. Kontuan hartuz balioetsi beharreko faktore bat ukitutako toki entitateen konpromiso maila eta eskainitako babesa zela, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Zuzendaritza Nagusiak idatzi bana bidali zien ukitutako udalei (bat proposamen bakoitzeko). Eduki bera dute idatziekin.

Bertan, beraien udaletan eragina duen proiektuari (edo proiektuei) buruzko iritzia eskatzen zaie udalei, baina proiektu jakin baten alde egin gabe eta inolako lehentasunik adierazi gabe (idatzien kopiak erantsi zaizkio erantzun honi: 2-8 eranskinak).

Gizarte Gaietako Batzordeak plan gerontologikoa eztabaidatu zuenean –1997ko maiatzaren 7an– agerian gelditu zen zaharreganako arretaren behar bezalako kalitatea bermatzearren hain zuzen ere jarduera sektore horren gaineko kontrol publikoa bermatzeko premia, eta jarduera pribatua den kasuetan, errentagarritasun ekonomikoa ez dadila izan bidezkoa baino handiagoa.

Horrela, bada, bertako aurrezki-entitateek (Nafarroako Aurrezki Kutxari eta Iruñeko Kutxari) eremu horretan ekimenak abian jar ditzaten bultzatzea proposatu zuen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariak.

Batzordekideek begi onez ikusi zuten ideia hura, eta berez, bi entitate horietako Administrazio Kontseiluek aho batez onetsi zuten zaharretxeak eraikitzeke proiektuei laguntza emateko proposamena (Ezker Batuako bi kontseilukideak ere ados azaldu ziren).

Nafarroako Aurrezki Kutxaren Administrazio Kontseiluak, bere aldetik, 1997ko otsailaren 14an egindako bilkuran, aho batez erabaki zuen

“Recursos Asistenciales, SA” sozietatea sortzea. Sozietate horrek zaharrei arreta eskaintzeko harrera-etxeak kudeatzeko ardura izanen luke.

Orobat erabaki zen, aho batez hori ere, Nafarroako Gobernuko bi funtzionario, gaian adituak, sozietate berri horren Administrazio Kontseiluan egotea, sozietatearen ekimenak eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak ematen dituen zuzentarauak koordinatzearen.

Iruñeko Kutxak ez du sozietaterik sortu, eta Administrazio Kontseiluak erabakitzen du zein proiektutan parte hartu.

Rural Kutxak ere hartzen du parte sektorean, eta % 51 du Burlatan zaharretxea sustatzen duen sozietatearen kapitalean.

Nafarroako hiru aurrezki-entitate nagusiak zaharrei arreta emateko proiektu horietan gidari izatea eta proiektuak martxan jartzea dateke gure ustez plan gerontologikoaren arrakastarik handiena (hala ikusten dute erkidego mugakideek), ze horrek bermatu egiten baitu kalitaterik hoberena kostu onargarri batekin eta, azken buruan, bermatu egiten baitu kudeaketaren kontrol publikoa.

Foru Parlamentario andreak galderan darabilen arrazoibidea muturreraino eramanez gero, Recursos Asistenciales, SAK ezin izanen luke inoiz jardun Foru Komunitatean, Nafarroako Aurrezki Kutxako Administrazio Kontseilua, besteak beste, Nafarroako Gobernuko kideek osatzen dutelako, eta beraz, beti egonen ziren bateraezintasun arazoak, Recursos Asistenciales, SA sozietatearen kapital guzti-guztiaren jabea baita Administrazio Kontseilua.

Era berean, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andrearen arrazoibidea muturreraino eramanez gero, Donibaneko La Vagudako orubea zaharretxea eraikitzearen lagatzeko eskatu duen sozietateak, Asistencial La Vaguada SAK alegia, ezin izanen luke lursail horren lagapena eskuratu; izan ere, lursail horren lagapena ebatzi behar duen organoak, hau da, Iruñeko Udaltzako, gehiengoa du Iruñeko Kutxako Administrazio Kontseiluan, eta horrek Asistencial La Vaguada, SA sozietatean parte hartzen duenez, baten batek bateraezintasun arazoak mahaigainerratu litzake.

Gogora dezagun Iruñeko Udaleko Ezker Batu-ko Lidia Biurrun zinegotziak pozez hartu zuela bi

aurrezki kutxek Asistencial La Vaguada, SA proiektuan parte hartzea, horrek kalitatearen bermea, kontrol publikoa eta esku-hartzea zekartzalako.

Azken finean, Administrazio Kontseiluak nortzuk osatzen dituzten ikusita, María Isabel Arboniés Bermejo andrearen tesiak ekarriko luke Nafarroako Aurrezki Kutxak eta Iruñeko Kutxak uko egin behar izatea zaharren gizarte zerbitzuen kudeaketari Foru Komunitatean behinik behin, eta Foru Parlamentario andrearen asmoa ez da gure ustez hori.

Beste horrenbeste gertatuko litzateke Gobernuaren nahiz Udalaren menpeko sozietate publikoek foru zein toki administrazioarekin, hurrenez hurren, egindako jarduketa eta kontratuekin. Hori gehiegikeria litzateke noski.

Ordea, merkataritza zein onegintzako ekimen pribatuek gizarte-ekintzako sektorean duten jardunean eragin eta Departamentuaren planifikazioarekin koordinatzearen, aldiro erabilitako teknika izan da Foru Komunitateko Administrazio goi karguek parte hartzea entitateen gobernu organoetan, esaterako “Tasubinsa”, “Real Casa de Misericordia de Tudela”, “Bartolomé de Carranza” fundazioa eta “Habitar, para el desarrollo de la ciudad y el territorio” fundazioa.

Kasu horietan guztietan, Recursos Asistenciales, S.A. ren kasuan barne, kasuan kasuko organo politikoak egin ditu gobernu organoetan parte hartzeko izendapenak eta zeharo doakoak dira. Horrenbestez, azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeak, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio goi kargudunen bateraezintasunei buruzkoak xedatzen duenari jarrikiz, bateragarria dela uste dugu.

Hori guztia jakinarazi dizut izan beharreko ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 1998ko urriaren 7an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

(Oharra: Aipatu agiria Foru Parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

**“Emakumeak eta iraupen luzeko langabetuak, 40 urte baino zaharragoak eta 25 urte baino gazteagoak, lanean txertatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Programak” izeneko kontusailaren betetze mailari buruzko galdera**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak “Emakumeak eta iraupen luzeko langabetuak, 40 urte baino zaharragoak eta 25 urte baino gazteagoak, lanean txertatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Programak” izeneko kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 29ko 73. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 21ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du “Emakumeak eta iraupen luzeko langabetuak, 40 urte baino zaharragoak eta 25 urte baino gazteagoak, lanean txertatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Programak” izeneko kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

Departamentu hau eragile ekonomiko eta sozialekin aritu da negoziatzen, Nafarroako Enplegu Zerbitzua martxan jartzeko eta Nafarroa-

ko Enplegu Plana egiteko; horrek aipatutako aurrekontu lerroa betetzeko arauen deialdi publikoaren atzerapena ekarri du, egokitu ahal izateko, horrela, aipatutako negoziazioen ondorioz sortuko diren programetara.

Aipatutako aurrekontu lerroak 65.000.000 milioi pezeta ditu.

1998ko abuzutaren 11n emaniko Foru Aginduaren bidez, lehen aipatu diren taldeen laneratzeari lortzeko prestakuntza ekintzetarako laguntzak arautu dira.

Deialdi hori dela-eta, sei enpresak eskatu dituzte dirulaguntzak; hamabost ekintza egiteko laguntzak eskatu dituzte, eta, guztira, 33.381.700 pezeta egiten dute.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak espedienteak aztertu zituzten, eta denek betetzen dituzte foru aginduak eskatutako baldintzak; beraz, sinatu dira, jada, eskatutako laguntzak emateko ebazpenak.

Aurrekoarekin bat, eta eskatutakoak aurrekontuko diru kopuru osoa egiten ez duenez, konprometitu gabe gelditzen dira, oraingoz, 31.618.300 pezeta.

Iruñean, 1998ko urriaren 16an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

## 1998-1999 ikasturtean aurrera jarraitu ezinik gelditu diren lanbide aukerei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak 1998-1999 ikasturtean aurrera jarraitu ezinik gelditu diren lanbide aukerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 29ko 73. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 22an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du 1998-1999 ikasturtean aurrera jarraitu ezinik gelditu diren lanbide aukerei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1. Ezin da zehaztasunez esan, Erdi Mailako Heziketa Zikloak LH1en jarraipena direnik, maila bereko titulazioetara bideratuta daudelako.

2. Hala ere, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, bere plangintzan, aintzat hartu zituen ikasketa horiek gainditzerik izan ez zuten LH1eko ikasleak. Horiei zuzenduta, LH1eko titulua lortzeko azterketak prestatzeko ikastaro bat antolatu zuen, espezialitateari egokituia; gainera, azterketak gaindituko zituztenak aurreikusi eta ekainean zenbait heziketa ziklo bikoiztu egin genituen. Irailan, zenbait ausazko faktore argitu ondoren, -irailan eginiko proben emaitzak, aurreinskripzio ugariak, benetako matrikulak eta besterik- beste bi talde eratu ziren.

3. Ez da ikasle bat bera ere gelditu erdi mailako heziketa zikloetan eskolaratu gabe.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 19an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## Nafarroako Gobernuak Pablo Sarasate orkestrari egiten dion ekarpenari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Nafarroako Gobernuak Pablo Sarasate orkestrari egiten dion ekarpenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 29ko 73. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 22an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak "Pablo Sarasate" orkestra mantentzeko egin duen ekarpena Príncipe de Viana Erakundeak haren titular den Sociedad de Conciertos Santa Cecilia izenekoarekin sinatzen duen hitzarmenari dagokio. 1998rako aurrekontu orokorretan "Sociedad de Conciertos Santa Cecilia" izeneko 42110 4816 2 4561 izeneko kontusail bat (14200-3 lerroa) dago. Orkestrak

ez du ahalmen juridikorik; kontzertuen sozietate horren menpeko entea da.

2. Sozietate horrek Príncipe de Viana Erakundeari aurkezturiko 1997ko kontuen balantzearen arabera, 194.805.667 PTAko dirusarrerak eta 193.948.637 PTAko gastuak ditu; beraz, emaitzen kontuak 857.030 PTAko emaitza positiboa agertzen du.

3. "Pablo Sarasate" Orkestrak titularitate pribatua du. Une honetan, Sociedad de Conciertos Santa Cecilia elkarte pribatua orkestraren titularitatea "Pablo Sarasate" Fundazioari aldatzea negoziatzen ari da. Azken fundazio hori ere pribatua da, Nafarroako Parlamentuaren ekimenez sortua; hogei milioiko kontusail bat eratu zen horretarako joan den ekitaldiko aurrekontuetan.

"Pablo Sarasate" Fundazioa Nafarroako Foru Zuzenbidearen Bildumako 44. Legean eta ondo-

koetan xedatuaren babespean eratu zen, interes publikoko fundazio pribatu gisa, iraunkorra eta irabazi asmorik gabea. Haren patronatu zuzendaria Sociedad de Conciertos Santa Ceciliaen eta Nafarroako Gobernuaren erabaki parekideaz izendatzen da. Fundazioak, honezkero, aipatu elkarte pribatuaren onespenearekin, zenbait kudeaketa-eginkizun hartu ditu bere gain, babesleak aurkitzeko plan bat artikulatzeko. Izan ere, finantzaketa bide publiko eta pribatuez lortzeko aukera aurreikusten dute estatutuek; bereziki dirulaguntzak eta babesleekin sinaturiko hitzarmenak aipatzen dira.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 19an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **Pablo Sarasate Orkestrarako bazkide berriak bilatzeari eta beherapen eskaintzei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Pablo Sarasate Orkestrarako bazkide berriak bilatzeari eta beherapen eskaintzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 29ko 73. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 22an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Pablo Sarasate Orkestrarako bazkide berriak bilatzeari eta beherapen eskaintzei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1. "Pablo Sarasate" Orkestrak ez du diru publikorik jasotzen. 1998rako aurrekontu orokorretan "Sociedad de Conciertos Santa Cecilia" izeneko 42110 4816 2 4561 izeneko kontusail bat dago, 14200-3 lerroa.

"Pablo Sarasate" Fundazioa Nafarroako Parlamentuaren aginduz sortu zen, izen bereko orkestra kudeatzeko, Nafarroako Foru Zuzenbidearen Bildumako 44. Legean eta ondokoetan xedatuaren babespean. Interes publikoko fundazio pribatua da, iraunkorra eta irabazi asmorik gabea. Izan ere, finantzaketa bide publiko eta pribatuez lortzeko aukera aurreikusten dute haren estatutuek; bereziki dirulaguntzak eta babesleekin sinaturiko hitzarmenak aipatzen dira.

Babesleen Plangintza bat egitea Fundazioaren Patronatuari dagokio, indarra duen legediari jarraituz. Patronatu horrek emandako informazioaren arabera, plan hori zabalik dago interesa duten pertsona fisiko eta juridiko guztiei, eta zenbait modalitate biltzen ditu bere baitan.

2. Ez dagokio Nafarroako Gobernuari entitate pribatu baten babes plangintza juzgatzea; bai, ordea, fundazioaren kontrola egitea, aplikatzekoa den legedi berariazkoari jarraituz.

3. Fundazioaren Patronatuari dagokio datu horiek ematea. Gerentziak emaniko informazioari jarraituz, berrehun bazkide berri horiek ez dira enpresa edo komunikabide partikular bati eginiko eskaintza batetik heldu.

4. Arestian aipaturikoari jarraituz, zabalik dago "Pablo Sarasate" Fundazioaren Patronatuak bere Estatutuen arabera sustaturiko babesari; babesetarako baldintzak alde interesdunek adosturiko hitzarmenen ondorioa dira, ez Nafarroako Gobernuaren borondatearena.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 19an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## Beren destinotik lekualdaturiko irakasleei egindako jakinarazpenei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak beren destinotik lekualdaturiko irakasleei egindako jakinarazpenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 29ko 73. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 22an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du beren destinotik lekualdaturiko irakasleei egindako jakinarazpenei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorri buruzko Lege Organikoaren ondoriozko irakaskuntzak Nafarroako Foru Komunitatean ezartzeari eta, horren ondorioz, Hezkuntzari buruzko Lege Orokorrari loturikoak desagertzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuak onetsitako egutegiaren arabera ari gara lanean. Bi une kritiko baizik ez da izan: bata 1995eko irailaren 1ean, DBHko lehen zikloa orokorki ezarri zenean (horren ondorioz, antzinako Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko 7. eta 8. mailak bukatu ziren); bestea 1998ko irailaren 15ean, Batxilergo berriak eta Lanbide Heziketako erdi mailako heziketa zikloak eta Lanbide Hastapeneko programak orokorki ezarri zirenean.

Horiek guztiak Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetan ezartzeko, zenbait neurri hartu behar izan ditugu Departamentu honi atxikitako langileak berrantola-

tzeko, Hezkuntzako Mahai Sektorialean dauden sindikatuetakoa ordezkariekin behar diren negoziazioak izan ondoren. (Batxilergoak eta erdi mailako heziketa zikloak ezartzeari dagokionez, 1998ko urtarrilaren 23an, "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa Hezkuntza eta Kultura Departamentua titular den ikastetxeetan ezartzeko baldintzei buruzko ituna" sinatu zen).

Ikastetxe publikoetako langileen plantillak sindikatuarekin itundutako moduan aldatzekotan –kontuan hartzen bada, gainera, itunduta dagoela Departamentuak ez duela lanposturik kenduko 1999/2000 ikasturtera bitartean–, abaguneak eskatzen dituen neurriak hartu behar dira ikasturtearen hasieran, ikastetxe bakoitzean hezkuntza-plangintzaren arabera behar diren langileak egon daitezten. Zehazkiago, behar baino irakasle gehiago egonez gero, beste ikastetxe batera aldatuko dira zerbitzu eginkizunetan irakaskuntza lan nahikorik ez edukitzeagatik, ikasturte baterako. Egoera hori ere itunean bildu zen, eta "Birbanaketari buruzko neurri osagarriak" izeneko haren VI. puntuko 2. atalean –"Derrigorrezko aldatzei buruzko arauak"–, ondokoa xedatu zen: "Irakaskuntza berriak ezartzearekin BHletako irakasleen plantillak aldatu behar dira. Hori dela eta, irakasleen mugigarritasuna arautu behar da, behin betiko destinoa ez dezaten galdu (irakaskuntza lan nahikorik ez izateagatik leku-aldatzeak)".

Galderan aipatzen diren puntu zehatzei dagokionez, ondokoa adierazi beharrean nago:

1. 1998ko irailaren 11n, Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuak jendaurrean jarri zituen Informazio eta Dokumentazio Bulegoan 1998/1999 ikasturterako beste destino bat, irailaren 14an egitekoa zen ekitaldi publiko

batean, hautatu beharko zuten irakasleen zerrendak:

a) Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle teknikoan, Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen, Arte Plastiko eta Diseinuko Tailerreko irakasle eta maisuen eta Musika eta Eszena-Arteetako irakasleen kidegoetako lanpostu hutsak, Zerbitzuan irailaren 10ean diren datuen arabera.

b) Behin betiko destinoa daukaten lekutik, irakaskuntza lan nahikorik ez dagoelako edo irakaskuntza euskaraz emateko hartu duten konpromisoagatik, mugiarazitako irakasleen zerrenda, emandako zerbitzuen arabera, 1998ko uztailaren 2an Giza Baliabideen zerbitzuburuak onetsitako irizpideei jarraituz.

c) 1998/1999 ikasturterako osasun arazoak eta aparteko arrazoiak direla-eta zerbitzu eginkizunak ematea proposatu den irakasleen zerrenda.

d) Behin-behineko destinoa izan eta beste hezkuntza-administrazio batzuetatik etorritako irakasleen zerrenda; izan ere, 1998/1999 ikasturtean destinoa zerbitzu eginkizunetan hautatu behar dutenak.

e) Kidego hauetako lanpostuetan zerbitzu berezietan sartzeko dauden izangaien zerrenda; Giza Baliabideen zerbitzuburuak ekainaren 23ko 1210/1997 eta ekainaren 1eko 703/1998 ebazpenen bidez onetsitako deialdietatik heldu dira hauek.

Irakasleen eta lanpostu hutsen zerrenda horiek Giza Baliabideen Zerbitzuak egin ditu, ikasturteko irakasleen eskakizunek ekarri duten irakasleen behar errealek ikusita. Horri dagokionez, aipatu beharrekoa da ikasleak onartzeko prozedura onesten duen Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren martxoaren 16ko 75/1998 Foru Aginduari jarraituz, irailaren 9an bukatu zela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako eskolak ematen dituzten ikastetxeetan aurreinskripzioa egiteko epea.

Data hori baldintzatuta dago iraileko aparteko ebaluazioko azterketak egin behar direlako eta ebaluazio batzarrek haiei dagozkien ebaluaziorak egin behar dituztelako.

Ikusirik ikastetxe horietan zenbat ikasle aurreinskribatu diren, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak ikasturte honetarako behar diren irakasleen plantillak prestatu zituen, eta informazio horri buruzko azken datuak Giza Baliabideen Zerbitzuari jakinarazi zizkion, irailaren 10ean.

Aipaturiko zerrendetan sartutako langileei dagokienez alde batera utzita irakaskuntza lan nahikorik ez edukitzeagatik mugiarazitako irakasleak irailaren 11n argitaraturiko zerrenda horiek eragina duten gainerako kolektiboek edo alde aurretik ezagutzen dute ikasturte bakoitzerako beste lanpostu bat hautatu beharrean daudela –euskaraz irakasteko konpromisoa hartu dutelako aldatu diren irakasleen kasuan edo behin-behineko irakasleen kasuan–, edo borondatez eskatu dute destino bat esleitzea zerbitzu eginkizunetan edo prestakuntzako zerbitzu berezietan ikasturte honetarako. Hori guztia ondoko biei jarraituz: irakaskuntza ez-unibertsitarioko irakasle-funtzionarioei 1998/99 ikasturterako behin-behineko destinoak eta zerbitzu eginkizunetakoak esleitzeko jarraibideak onesten dituen Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren ekainaren 17ko 224/1998 Foru Agindua (uztailaren 1eko 78. NAO); eta A maila edo taldeko irakasleen lanpostuak, eskola orientatzaileenak barne, prestakuntzarako zerbitzu berezietan betetzeko izangaien zerrendak osatzeko deialdia onesten duen 703/1998 Ebazpena, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak ekainaren batean emana (ekainaren 19ko 73. NAO).

Irakaskuntza lan nahikorik ez edukitzeagatik ikastetxez aldatu diren irakasleen kasuan, Giza Baliabideen Zerbitzuak banaka deitu zituen 32 irakasle interesatuak, Departamentuak 14an eginen zuen destinoen banaketarako ekitaldi publikora, irailaren 11n igorritako telegrama zertifikatuen bitartez. Hala ere, azpimarratu beharra dago irakaskuntza lan nahikorik ez edukitzeagatik ikastetxez aldatu direnen kolektibo horren zati batek borondatez eskatu zuela behin-behineko aldaztea, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren ekainaren 17ko 224/1998 Foru Aginduari eta abuztuaren 5eko 1774/1994 Errege Dekretuaren 4. xedapen gehigarriari jarraituz (EAO, 234. zenbakia, irailaren 30ekoa). Halaber, Ikuskapen Zerbitzuak ikastetxe guztiei jakinarazi zien 1998/1999 ikasturtean zenbat irakasle beharko zituen.

Halaber, zerbitzu honek 1998/1999 ikasturtean hasiera dela eta egin behar dituen jarduketak zuzen hedatuko direla bermatzeko, irailaren 6an, Nafarroako Foru Komunitateko zabalpen handieneko bi egunkarietan (Diario de Navarra eta Diario de Noticias), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Arte eta Hizkuntzen Ikasketetako ikasturtea hasteko egutegia argitaratu zen; besteak beste, aipatu kidegoetako irakasleen –irakaskuntza lan nahikorik ez edukitzeagatik ikastetxez aldatutakoen– zerbitzu eginkizunetako destinoak esleitzeko ekitaldi publiko iragarri.



Iragarki horietan, halaber, interesdunei jakinarazten zitzaizen zerrenda horiek Hezkuntza eta Kultura Departamentuan jendaurrean jarrita zehaztuak. Irailaren 11n, ostiralez, 16:30etatik 19:30etara, eta irailaren 12an, larunbatez, 9etatik 13:30etara, egon zen irekita Departamentua.

Kontuan hartu behar da, gainera, zerrendak irailaren 11n jendaurrean jarri zirenetik eta destinoak esleitzeko ekitaldi publikoak egin ziren arte (irailaren 14, 15 eta 16an), Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ikasturte honetan betegabe dauden lanpostuen zerrenda eguneratuaren fotokopiak banatu zizkiela interesdun guztiei.

2. Galderaren 2. atalari dagokionez, ondokoa adierazi nahi dugu:

1) Ekainean, halako kalkulu bat egin zen hurrengo ikasturterako irakasleen beharrei buruz.

Kalkulu horrek akats tarte bat du; tarte horren arrazoia da egun horietan irakaskuntza modu guztietako etapa, modalitate eta ikasmailatan matrikulatu diren ikasle kopuruei buruzko daturik ez dagoela.

Hori horrela da fondo publikoek finantzaturiko Unibertsitatez besteko ikastetxeetan ikasleak onartzeari buruzko prozedura arautzen duen Foru Aginduak (1998/1999 ikasturterako martxoaren 16ko 75/1998 Foru Agindua) irailaren 17ra arteko matrikula epeak ezartzen dituelako.

2) Aurreko atalean esandakoaz gainera, 1998/1999 ikasturtean izaera orokorrean ezarri nahi dira batxilergoko eta erdi mailako heziketa zikloen lehen maila eta lanbide-hastapeneko programak.

Argi dago ikasleek eskaintza berri baten alde egin beharrik zaila dela handiagoak sortzen dituela plangintza egiteko orduan.

3) Aurreko atalaren esandakoak gorabehera, aipatu beharrek da ekainean eta irailean aurreikusitako irakasleen behar orokorrak ez direla asko aldatu, eta, are gehiago, objektiboki ia garrantzirik gabekoa dela. Hala ere, ikastetxez ikastetxe espezialistak zehazteko, ikasketa modu bakoitzean egonen diren ikasleen kopurua ezagutu behar da.

Beti ere, aldaketa txiki horiek aurreikusitako beharrik igotzea ekarri du berekin; beraz, lekuz aldatutako irakasleen kopurua jaitzi egin da.

3) Parlamentarioaren galderak aipatzen duen irakasleen behin-behinekotasunaren ehunekoari dagokionez, ondotik Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpeko behin betiko eta

behin-behineko destinodun irakasleen kopuruak aipatu ditugu:

Maisu-maistren Kidegoko irakasleak

1995/96 ikasturtean, Departamentuaren menpeko maisu-maistren kopurua, behin-behineko destinoa dutenena, 368 egiten zuen, guztira. 1996/97 eta 1997/98 ikasturteetan, ahalegin handia egin dugu kopuru hori murrizteko. Hori dela eta, 2.336 dira behin betiko destinoa duten maisuen kopurua; 91 maisu gelditzen dira, beraz, behin-behinekoko destinoarekin. Azken kopuru horrek maisu-maistren kidegoko irakasleen ehuneko 3,8 inguru baizik ez du egiten. Behin-behinekotasuna, beraz, ehuneko 75,27 jaitzi da.

Bigarren Hezkuntzan, Lanbide Heziketan eta Arte eta Hizkuntzen irakaskuntzan ari diren irakasleak.

1995/96 ikasturtean, 213 ziren Departamentu honen menpeko behin-behineko destinodun irakasleen kopurua. 1996/97 eta 1997/98 ikasturteetan ahalegin handia egin dugu kopuru hori murrizteko.

Egun, 1.629 dira behin betiko destinoa duten irakasleak; 36 irakasle gelditu dira behin-behinekoko destinoarekin. Azken kopuru horrek aipatu irakaskuntzetan ari diren kidegoetako irakasleen ehuneko 2,2 inguru baizik ez du egiten. Behin-behinekotasuna, beraz, % 83,09 jaitzi da.

Behin-behinekotasun kontzeptua aldi baterako irakasleekin lotzen badugu, azpimarratu beharrek da "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa Hezkuntza eta Kultura Departamentua titular den ikastetxeetan ezartzeko baldintzei buruzko ituna" izeneko akordioari jarraituz, itunak indarra duen bitartean, unibertsitatez besteko irakasleen beharrik ez diren buruzko azterketa bat egiten dela, behin-behinekotasuna murrizteko eta sistemaren egitura-beharrak betetzeko, itunean bildutako printzipioak aplikatuta.

4) 1998/99 ikasturtearen hasiera dela-eta eskaintako lanpostuak Nafarroan joan den ikasturtean eginiko birbanaketa-prozedurarako prestatutako irakasleen plantilletan ez sartzeari dagokionez, ondokoa hartu beharrek dira kontuan:

Departamentu honen menpeko ikastetxeetan, Batxilergoak eta erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloen ezarpena 1998/99 ikasturteetik egiten ari da; horrek berekin ekarri du Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan diren lanpostuen plantilla berriak egin behar izatea, hain zuzen ere Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan

(LOGSE) aurreikusitako sistema berriaren eskakizunetara egokitzeko, eta, gero, langileen birbanaketa-prozesua eginda, langileen aurreko plantillak lanpostu berrien plantilla horietara doitzeko.

Unibertsitatez besteko irakasleen mahai sektorialean dauden sindikatuek eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak lorturiko akordioa "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa Hezkuntza eta Kultura Departamentua titular den ikastetxeetan ezartzeko baldintzei buruzko ituna" izenekoan gauzatu zen. Itun hori oinarri harturik, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren martxoaren 16ko 73/1998 Foru Aginduz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa, Batxillergoan, eta Arte eta Hizkuntzen irakaskuntzan ari diren Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpeko ikastetxeetako plantillak onetsi ziren. Plantilla horiek dira irakasleen birbanaketa prozeduretan eta 1997/98 ikasturtea bitartean deituriko lanpostuak betetzeko erabili behar direnak.

Martxoaren 16ko aipatu 73/1998 Foru Aginduz onetsitako ikastetxeen plantilla berriak egiteak berekin dakar, beraz, horietan "plantillak eta lanpostu hutsak zehazteko irizpideak" aplikatzea, urtarrilaren 23ko itunean bildutakoari jarraituz, kontuan harturik ikasturte honetan hasi eta 2000/01 ikasturtea bukatu bitartean Nafarroan ezarriko diren irakaskuntza berriak. Hori dela eta, bestalde, aurikuspen bat egin da, ikusirik ikastetxe bakoitzari zenbat ikasle dagozkion eta ikasle horiek batxilergoko modalitateetan, lanbide heziketako prestakuntza zikloetan eta lanbide-hastapeneko programetan hautatu dituztenak.

Hala eta guztiz ere, plantilla horietan sartu ez diren lanpostuei baina ikasturte honetan betetzeko eskaini ez direnei dagokienez, kontuan hartu behar da ikasturte honetan, Nafarroan, batera egonen direla LOGSEn ezarritakoaren ondorioz berriki ezarritako ikaskuntzak eta horiek ezarri ahala desagertzen joanen diren aurreko ikaskun-

tzak. Hori guztia Nafarroako Gobernuak ikaskuntza berriak ezartzeko prestatu duen egutegiari jarraituz.

Bestalde, ez da ahaztu behar hezkuntza sistemak behin betiko destinatorik gabeko langile batzuk ere behar dituela; izan ere, ikasleen matrikulazioan edo hezkuntza politikan gerta daitezkeen aldaketen arabera, ikastetxe batean ematen diren irakaskuntzak ikasturte batetik bestera alda daitezkeenez, ikastetxe horrek behar dituen langileak ere alda baitaitezke. Hori dela eta, lanpostuak betetzeko prozesu bat medio prestatzen diren irakasleen plantillak –martxoaren 16ko 73/1998 Foru Aginduz onetsitako plantillak, kasu– iraunkorrak izateko itxura duten lanpostuak bildu beharko dituzte, hau da, behin betiko destituzko langileekin bete beharreko lanpostuak. Horrela eginen ez balitz, behin betiko destinoa emanen litzaioke funtzionario bati jakinda betetzen ari den lanpostua ez dela beharrezkoa eta handik tarte batera desagertu eginen dela.

Iraunkortasunik gabeko behar horiek, ikasturte batetik bestera aldatzen direnak, behin-behineko destituzko irakasleekin bete behar dira, edo, bestela, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak aldi baterako kontrataturiko langileekin.

Edonola ere, arestian esan dugun bezala, itunak indarra duen bitartean, langileen beharrak aztertuko dira behin-behinekotasuna murrizteko, behin Nafarroako Gobernuak enplegu publikoaren eskaintza egin eta ikasturte honetan deitzeko dagoen nazio mailako leku-aldatze lehiaketa ebartzi ondoren.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 13an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **Esako Urtegia zabaltzearekin Aragón ibaiaren eskuin aldeko ertzerako aurreikusten diren ureztalurrak Hidrologi Plan Nazionalean sartzeko Nafarroako Gobernuak emandako urratsei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Esako Urtegia zabaltzearekin Aragón ibaiaren eskuin aldeko ertzerako aurreikusten diren ureztalurrak Hidrologi Plan Nazionalean sartzeko Nafarroako Gobernuak emandako urratsei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 6ko 76. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 22an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Esako Urtegia zabaltzearekin Aragón ibaiaren eskuin aldeko ertzerako aurreikusten diren ureztalurrak Hidrologi Plan Nazionalean sartzeko Nafarroako Gobernuak emandako urratsei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilari naizenez eta Uraren Kontseilu Nazionalean Nafarroako Gobernuaren ordezkari naizen aldetik, munta honetako kontu bati zor zaion arreta eskaini diogu arazoari, eta lortu ere lortu zen Uraren Kontseilu Nazionalaren aurrean eginiko boto partikularra igor zedin Ebro Arroko Uraren Kontseilura, hor izapidatu eta ebatzi zedin.

1998ko irailaren 23an eginiko bilkuran, eta Nafarroako Gobernuak hala eskaturik, Ebroko Ur Konfederazioko Lehendakariak ondoko erantzuna eman zuen: “Nafarroaren boto partikularra aztertu, eta araudiko artikulua egun nola idatzita dauden ikusita –Ustiaketa Batzarreari dagozkionak 15 eta 16, Aragoi, Irati, Ega eta Arga– argi eta garbi onar daiteke Nafarroaren boto partikularra, zeren eta bigarren helburuko artikulua batek dienez, Zaraitzu ibai erregulatu eta horren ondoriozko baliabideak gorde eginen dira arroaren beraren beharretarako eta Aragoi behearen ingururako.”

Horrek argi eta garbi erakusten du onargarria dela Nafarroako Gobernuak bere ordezkariaren bidez aipatzen zuen aukera, hau da, Nafarroan, Aragoi ibaiaren eskuin aldeko ertzerako ureztalurrei 48 hm<sup>3</sup> ematea.

Ureztalur horiek hornidura izan dezakete eta finkatu egin daitezke baldin eta Esako urtegia zabaltzen bada, eta Zaraitzu ere gehitu edo ibai hori erregulatu bada.

Argitu egin behar da orain idatzita dagoen moduan, Nafarroaren boto partikular hori onargarria dela. Gainera, Uraren Kontseilu Nazionalak arro horretako uraren kontseilura igorritakoak ere bermatzen du boto partikularra.

Aipatu ere aipatu behar da Hidrologi Plan Nazionala idatzi gabe dagoela oraindik, eta Estatuaren eskumena da plan hori prestatu eta izapidatzea.

2.- Ebro ibaiaren ezkerreko ertzean dauden 7.271 hektarea ureztatzen hastea historikoki jo du onuragarri Nafarroako Gobernuak.

Hona hemen kontuarekin zerikusia duten agiri eta azterketen zerrenda:

- Nafarroan, Mediterraneoko isurialdean, zehaztea ureztazgarriak izan daitezkeen eremuak eta egun ureztatzen direnak (1982ko urtarrila).

- Lan hidrauliko eta erregulazio arloetako irizpideak eta lehentasuna duten jarduketak (1985ko urtarrila).

- Uraren kudeaketa eredia Nafarroan, Mediterraneoko isurialdean (1986ko urtarrila).

- Aspurtzetik Esara ura eramatea eta Zaraitzu ibaia erregulatzearen bideragarritasunari buruzko azterlana (1987ko urtarrila).

- Nafarroaren ur-baliabideen plangintza eta kudeaketa. Erregulazio azpiegutaratan lanak egiteko jarduketa proposamena (1988ko iraila).

- Esaren zabaltzea jendaurrean jarritakoan eginiko alegazioa (1993ko ekaina).

- Nafarroako Foru Komunitateko Ureztapenen Nekazaritza Plana (1994ko maiatzaren 23ko erabakia).

- Ureztapenen Plan Nazionalaren Aurrerapenari Ministro Kontseiluak emaniko onespena (1995ko urria).

- Ebro Arroko Uraren Kontseiluan eginiko boto partikularra (1996ko otsaila).

- Nafarroako Foru Komunitateko Ureztapenen Plana (1998ko ekaina).

Horiei buruz, hurrengo xehetasunak egitea komeni da:

1993ko ekainaren 16an, Nafarroako Gobernuak Esako urtegia zabaltzeari eginiko alegazioan, adierazi zen beharrezkoa zela 47,47 hm<sup>3</sup> erabiltzea ureztalur gehiago sortzeko; hori Riegos de Navarra, SA aztertzen ari zen; hona hemen nola zertzen zen:

Oibar	1.772 Ha
Kaseda	688 Ha
Eslaba	289 Ha
Ezprogi	274 Ha
Galipentzu	736 Ha
Xabier	172 Ha
Leatxe	100 Ha
Liedena	462 Ha
Zare	624 Ha
Zangoza	1.996 Ha
Esa	158 Ha
GUZTIRA	7.271 Ha

Azpimarratzekoa da Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak jaso zituela, 1995ean,

Ureztapenen Plan Nazionalaren Aurrerapena egiterakoan, ureztazgarriak izan zitezkeen eremuen artean, Esa zabalduaren 7.271 hektareak; halaxe egiten zuten, baita ere, Nafarroako Gobernuak 1994ko maiatzaren 23an onetsitako Foru Komunitateko Ureztapenen Nekazaritza Planak eta Nafarroako Gobernuak 1998ko ekainaren 29an onetsitako Foru Komunitateko Ureztapenen Planak, zeina, egun, Parlamentuan ari baita izapidatzen.

3. Etengabe harremanetan egon dira Nafarroako Gobernu eta Aragoikoa, eta 7.271 hektarea horiek Nafarroan sartzeko eskariari baiezkota eman zioten Aragoiko ordezkariak lehen aipatu den 1998ko irailaren 23an eginiko Uraren Kontseiluaren bilkuran.

4. Galdera honetan galdetutakoak erantzunda daude 1. eta 2. puntuei emaniko erantzunetan.

5. Nafarroako Gobernuak jakinaren gainean eduki ditu, betiere, horren berri izatea eskatu duten udalak; hala ere, ez da hala izan ureztatzailer-elkarteekin, gaur egun ez baitira existitzen juridikoki.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 14an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo.  
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

## Ureztalur berriak sortzeko eta daudenak hobetzeko egindako inbertsioei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak ureztalur berriak sortzeko eta daudenak hobetzeko egindako inbertsioei buruz eginda duen galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 6ko 76. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 23an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ureztalur berriak sortzeko eta daudenak hobetzeko egindako inbertsioei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1. Ez da aldaketarik izan kontusail honi aplikatu beharreko arauetan.

2. Aurrekontuei buruzko aurreproiektuan, 1.200.000.000 PTA zeuden kontusailean. Aurrekontuei buruzko Legea Foru Parlamentuan izapidatu ondoren, 1.400.000.000 PTA gelditu ziren kontusail horretarako. Geroztik, ez da aldaketarik batere izan.

3. Aurrekontuko zenbatekotik 678,8 milioi 1997ko ekitaldirako hitzartutako kredituari dagozkio.

4. Udaletan eginiko jarduerak eta haien onuradunak, aurrekontuak eta egoera eranskinean zehaztu ditugu.

5. 1999rako ekitaldian 598 milioi pezetako zenbatekoa dago hitzartuta.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 20an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

(Oharra: Aipatu eranskina Foru Parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

## RU 486 pilula erabili ahal izateko harturiko neurriei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak RU 486 pilula erabili ahal izateko harturiko neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 19ko 79. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du RU 486 pilula erabili ahal izateko harturiko neurriei buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1) Zer neurri hartu du Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak RU 486 pilula Nafarroan eskuragai izateko?

Bat ere ez.

2) Osasun Departamentuak argibiderik eman al die Nafarroako ospitale publikoei ginekologi zerbitzuek RU 486 botika inportatu eta medikuaren agindupean banatu ahal izan dezaten?

Ez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 20an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **N-132 errepidean, San Martín Unxen parean, hasitako obrek Uxuen izandako eraginei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak N-132 errepidean, San Martín Unxen parean, hasitako obrek Uxuen izandako eraginei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 6ko 76. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 29an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du N-132 errepidean, San Martín Unxen parean, hasitako obrek Uxuen izandako eraginei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- N-132 errepidean San Martín Unxen parean hasitako obrek Uxueko biztanleei ekarritako arazoak berri noiz eta nola izan zuten Nafarroako Gobernuak? Uxuerako sarbideen baldintzak hobetzeko inolako jarduketarik burutzea pentsatu al zuen Nafarroako Gobernuak? Zer nolako jarduketak?

San Martín Unxeko zeharkaleko lanak, osorik, Udalak finantzatutakoak dira.

Udalaren ekimen horren barrenean, proiektua landuko duten teknikariak kontratatzea, lanak kontratatzea eta obrak zuzentzeko teknikariak kontratatzea daude.

San Martín Unxeko Udala denez lana osorik kudeatuko duena, hari dagokio, horretarako kon-

tratatu zuen obra zuzendaritzaren bitartez, behar diren neurriak ezartzea obrak zuzen egin daitezkeen, hirugarrenei kalte txikiena eginez. Eginkizun horien barrenean dago, bereziki, trafikoko behin-behineko desbideraketak egitea eta haiek seinalatu eta zaintzea.

Azken horri dagokionez, abuztuaren bukaeran izan zuten Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Uxueko biztanleek eginiko keixuen berri, San Martín Unxeko Udalak kontratatutako obraren zuzendaritzaren bitartez.

Orduan, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak idatziz jakinarazi zion Uxueko Udalari ibilgailu arinek erabili beharko zuten ibilbide alternatiboa: NA-5110 errepidea, Lergako gaina - Olleta - Puiu (bost kilometro luzeagoa). Idazki berean, jakinarazi egin zion Departamentua larrialdietako ibilgailuentzat zeharkaleko bidea prestatuko zela. Era berean, Uxueko Udalari jakinarazi zitzaion zeharkalea zabalik egonen zela asteburuetan.

Halaber, zenbait jarraibide eman ziren desbideraketa alternatiboen mezuetan errepideetako gorabeherari arreta emateko telefonoa jartzeko: 948/427500.

2.- Aipaturiko errepide horretan burutzen ari diren obraren proiektua idatzi, onetsi eta burutzera koan zer nolako parte-hartze izan du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak? Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ba al daki hasierako proiektuan aurreikusitako obraren aldaketarik egin al den obra horiek burutzean?

Obraren proiektua idatzi, burutu eta zuzentzeko eskumenak norenak diren lehen galderako erantzunean zehaztu dugu: San Martín Unxeko Udala da bete-betean ekimen honen arduraduna.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak San Martin Unxeko Udalak kontrataturiko teknikariek eginzuten proiektua onetsi zuen, Departamentu honek finantzatzen duen obraren zatiari dagokionez (errepideko zorua eta haren drenajea).

San Martin Unxeko Udalak kontrataturiko enpresa eta obren zuzendaritza dira lanak burutu dituztenak.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak errepideko zoruari eta haren drenajeari dagokien obra zatia teknikoki zuzen eginen dela gainbegiratu du, betiere Udalak kontrataturiko obren zuzendaritzarekin hartu-emanean.

Departamentuak hasierako proiektuaren aldaketa bakar baten berri izan du: espaloi-ertzak hormigoizkoak izan beharrean harrizkoak izanen dira.

Aldaketa hori onartua izan da, prezioak alderatu ondoren, eta Departamentuak finantzatu du.

3.- Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ba al zekien abuztuaren 17an N-132 errepidean obrak hastera zihoazela, San Martin Unxen parean, eta errepide hori modu iraunkorrean etena egonen zela?

Departamentuak bazekien San Martin Unxeko zeharkaleko obrak 1997ko bukaera aldean hasi zirela. Obra horiek egin bitartean, bi aldiz eten behar izan zen trafikoa: behin, Erriberri - San Martin Unx tartean, eta beste behin errepide-tarte horren lanak bukatu ondoren, Tafalla - San Martin Unx tartean.

Obren zuzendaritzak abuztuaren 17an jakinarazi ondoren izan zuen Departamentuak egitekoa zen mozketaren berri. Une hartan, bi jarduketa egin ziren: batetik, idatziz jakinarazi Papelera Navarra, Viscofán eta Transangüesa enpresei zein izanen ziren ibilgailu astunentzako desbideraketa alternatiboak; bestetik, obren zuzendaritzak jakitera eman zion Uxeko Udalari ibilgailu

arinek NA-5112 errepideko desbideraketa erabili beharko zutela.

4.- Aurreikusitako errepide alternatiboak obrak hasi aurretik ikuskatu al zituen trafiko alorrean eskudun den Nafarroako Gobernuak Departamentuak, trafikorako seinale eta baldintza egokiak zituztela egiaztatzeko?

Departamentuak desbideraketa alternatiboetako seinaleak, egindako hiru etenetan, gainbegiratu zituen, eta laguntza eman zion Udalari eta Udalak kontrataturiko obren zuzendaritzari egunkari-iragarkiak jarri eta erabiltzaileari arreta egiteko telefonoan informazio hori ematearren.

5.- Zein egunetarako dago aurreikusia aipaturiko obrak amaituta egotea? Aipaturiko larrialdia bezalako gertakaririk berriro jazo ez dadin Nafarroako Gobernuak jarduketaren bat egin al du, edo horretarako asmorik ba al du? Zer nolako jarduketa?

1998ko abenduaren bukaeran bukatuko direla esan digu San Martin Unxeko Udalak, obrak horiek berak egin behar baititu, hain zuzen ere.

Irailaren 28an, zeharkalea ibilgailu arinentzat zabaldu zen; betiere, semaforoek erregulaturiko pausu alternatiboa erabili behar da.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ondoko neurria hartuko du: ez du zeharkaleak berritzeko proiekturik onartuko, zoruari eta haren drenajeari dagokienez, baldin eta toki entitateak ez baditu behin-behineko desbideraketak, haien seinaleak eta erabiltzaileari arreta egitea behar bezala aurreikusten.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 14an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## **Ikasturte honetan hiru urteko ikasleen eskolatzeari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak ikasturte honetan hiru urteko ikasleen eskolatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 6ko 76. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 29an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du ikasturte honetan hiru urteko ikasleen eskolatzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1. 4590 dira 98-99 ikasturtea hasi duten hiru urteko ikasleen kopurua.

2. 1853 dira ikastetxe publikoetan G eta A ereduetan matrikulaturiko hiru urteko haurrak; 1512 ikasle daude ikastetxe pribatuetan eredu horietan matrikulatuta. D eta B ereduetan, 89 ikasle matrikulatu dira ikastetxe publikoetan, eta 335 ikastetxe pribatuetan.

3. Tokia eskatu duten guztiei eman zaie, bai sare publikoan eta bai itunpeko ikastetxeen sare-

an, eta indarra duten legeetan bilduriko eskolaratze irizpideak aplikatu dira.

4. 126 ikasle –eskatzaileen ehuneko 2,7– izan dira aurrematrikulako lehen aukeran eskolaratu ez direnak: horietatik 58 D ereduak ziren –eskatzaileen ehuneko 1,2–; 78, berriz, G eta A ereduak ziren –eskatzaileen ehuneko 1,5–. Ondokoa dira egoera horren arrazoiak: zenbait ikastetxetan, eskola-postuen eskaria gehiago egotea ikastetxeek –beren ahalmen, administrazio-baimen edo hasierako plangintzaren arabera– egin duten eskaintza baino, edo eskaria egiten den ikastetxean eskatzen den modalitatea ez egotea.

5. Derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzako ikastetxe guztien zerrenda osoa erantsi dugu. Datuak behin-behinekoak dira, betiere, zerrenda hori prestatzeko ikastetxeek administrazioari artean ere igortzen ari zaizkion dokumentuak erabili baititugu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 24an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

(Oharra: Aipatu zerrenda Foru Parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).



## Sare publikoko ospitaletan egiten diren organoen transplantei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak sare publikoko ospitaletan egiten diren organoen transplantei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 19ko 79. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 29an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Eusko Alkartasuna” Parlamentuko Taldeko Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Sare publikoko ospitaletan egiten diren organoen transplantei buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1. Egiten al dira Nafarroako ospitaleen sare publikoan?

Giltzurrun eta giblelekoak ez dira egiten.

Korneako transplanteak Bideko Ama Birjina Ospitalean egiten dira.

2. Erantzuna ezezkoa bada, ezezko horren azalpen arrazoitua.

Giltzurrun eta gibleleko transplanteak

a) 520.000 biztanle dituen eta urtean gibleleko 29 transplante (91-97 urteetako batez bestekoa)

egiten diren komunitate batean, hobe da gibleleko transplante guztiak ekipo berak egitea.

Berdin esan daiteke gibleleko transplantei buruz. Batez beste 16 transplante egiten dira urtean.

b) 1969 urtean egin zen Foru Komunitatean giltzurruneko lehenbiziko transplantea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin itundutako zentro batean. Gaur arte, 500 transplante baino gehiago egin dira; beraz, transplanteak egiten dituen ekipoak emaitza ezin hobeak lortzen ditu.

c) “Zentro efektu” ezaguna, gure Komunitateko giltzurrun gaixoei orain arte izan duten kalitate bera mantendu nahi bada; transplantea jaso eta geroko txertoaren bizia eta gaixoena gainerako autonomi erkidegoetan lortzen diren emaitzen gainetik daude.

d) Transplanteak garestitu egingen lirateke.

3. Beharrezko direnetatik izanik, zer baldintza falta diren, zehazki.

Gaixo gehiago behar dira. Beste ekipo bat jartzeko, prebalentzia-datuen arabera Foru Komunitateko biztanleen artean gerta daitezkeenak baino askoz ere gaixo gehiago beharko genituzke transplante baten beharrean.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 22an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Nekazaritzako elikagaiak kooperatiben bidez industrializatzea eta merkaturatzea bultzatzeko laguntzei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak nekazaritzako elikagaiak kooperatiben bidez industrializatzea eta merkaturatzea bultzatzeko laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 6ko 76. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 30ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nekazaritzako elikagaiak kooperatibak ez diren enpresen bidez industrializatzea eta merkaturatzea bultzatzeko laguntzei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1. Ez da aldaketarik izan kontusail honi aplikatu beharreko arauetan.

2. Aurrekontuei buruzko aurreproiektuan, 374 milioi pezeta zeuden kontusailean. Foru Parlamentuan izapidatu ondoren, 474 milioi pezeta erabaki ziren kontusail horretarako.

3. Ekitaldi honetarako baliagarri dagoen zenbatekotik 231.246.162 pezeta aurreko ekitaldian hitzartutakoei dagozkie.

4. Onuradunak, inbertsioak eta ordainketen aurreikuspenak eranskinean jarri ditugu.

5. 1999rako hitzartutakoak 137 milioi pezeta egiten du; 2000. urterako hitzartutakoak, berriz, 120 milioi pezeta egiten du.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 23an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

(Oharra: Aipatu eranskina Foru Parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

## **Nekazaritzako elikagaiak kooperatibak ez diren enpresen bidez industrializatzea eta merkaturatzea bultzatzeko laguntzei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak nekazaritzako elikagaiak kooperatibak ez diren enpresen bidez industrializatzea eta merkaturatzea bultzatzeko laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 6ko 76. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 30ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nekazaritzako elikagaiak kooperatibak ez diren enpresen bidez industrializatzea eta merkaturatzea bultzatzeko laguntzei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1. Ez da aldaketarik izan kontusail honi aplikatu beharreko arauetan.

2. Aurrekontuei buruzko aurreproiektuan, 1.080 milioi pezeta zeuden kontusailean. Foru

Parlamentuan izapidatu ondoren, 1.280 milioi pezeta erabaki ziren kontusail horretarako.

3. Ekitaldi honetarako baliagarri dagoen zenbatekotik 885.687.542 pezeta aurreko ekitaldian hitzartutakoei dagozkie.

4. Onuradunak, inbertsioak eta ordainketen aurreikuspenak eranskinean jarri ditugu.

5. 1999rako hitzartutakoak 1.050.433.035 milioi pezeta egiten du; 2000. urterako hitzartutakoak, berriz, 553.460.712 milioi pezeta egiten du.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 23an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

(Oharra: Aipatu eranskina Foru Parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

## Umetoki-lepoko minbizia aurrezaintzeko programak abiarazteari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak umetoki-lepoko minbizia aurrezaintzeko programak abiarazteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 19ko 79. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 30ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak galdera egin du gizkonezkoen sexu-jarduera arriskutsuekin lotutako gaixotasunei aurrea hartzeari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

Umetoki-lepoko minbizia ez dago oso hedatuta Nafarroan eta, jakina, sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunen ezaugarri epidemiologikoak ditu. Azterlan ugari erakutsi duenez, ondoko emakume hauek dira arrisku gehien dutenak: sexu-harremanak garaiz hasitakoak edo sexu-lagun anitz dituztenak, eta baita oso promiskuoa diren lagunak dituztenak ere.

Azido nukleikoak hibridatzeko teknikak erabiliz, frogatuta dago giza papilomaren birus (VPH) mota batzuk direla tumore honen agente etiologiko nagusiak. VPHaren indar karkinogenikoa dokumentatuta dago aluko, zakileko, baginako, alderdi

perianalekoa eta ipurdiko kanaleko minbizien baitako sail batzuetan.

Oinarri hauetatik abiatuz, umetoki-lepoko minbizia laster detektatzeko jardueretan, euren ohitura sexualak direla-eta arrisku handia duten pertsonetan jarri da lehentasuna.

Gaixotasunei aurrea hartzea dela eta -beti ere sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunei loturik-, honako programa hauek dira kontuan hartu beharrekoak:

#### 1. PROGRAMA OROKORRAK.

Hezkuntzaren esparruan egiten denaz gain eta Oinarrizko Osasun Laguntzan eta FOSHEZetan egiten diren osasuna sustatzeko eta hezitzekeo programez gain, badira, sexu jarduerak direla eta, arriskuak prebenitzeko eta osasuna zaintzeko beste heziketa programa batzuk, gobernuz kanpoko erakundeek kudeatutakoak. Programa horien hartzailleak herritarrak dira, askotan gazteak, eta bi sexuetoakoak.

Osasun Publikoaren Institutuak, gai hauei buruzko informazioa herritar guztiei eskaintzen dieten GKE-en artean, ondoko hauei ematen die dirulaguntza: SARE, HIESaren aurkako Batzorde Hiritarra, Inyasidea eta Vida Nueva.

#### 2. PROGRAMA ESPEZIFIKOAK

Programa orokorrez gain, badira bi programa espezifiko gizonentzat, sexu-jarduerekin zerikusia duten arriskuak prebenitzeko eta gutxitzeko bi programa.

– SAREk, 1992tik hona, Iruñeko espetxean egiten duena. Osasun-hezkuntzako programa horrek, besteak beste, alderdi hauek lantzen ditu, eta espetxeko presoek zuzenduta dago.

– Andraizek 1997tik hona egiten duena. Programa sozio-sanitario hori prostituzioko bezeroei zuzendua da, eta berriazko langileak ditu (prostituzio lekuetan bezeroak hartu eta Andraizen laguntza ematen diena) eta denbora konkretu bat (ostegun arratsaldetan, Andraizen).

Zerbitzu bera, egun, prostituzio munduaz kanpo jasotako gizonei ere ematen zaie laguntza (gizonezkoei bakarrik).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 20an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## Arga ibaian, Antsoingo udal dermio aldean, hilik aurkituriko arrainei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Arga ibaian, Antsoingo udal dermio aldean, hilik aurkituriko arrainei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 13ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 31n

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak (andreak) idatziz erantzuteko galdera egin du Arga ibaian, Antsoingo udal dermio aldean, hilik aurkituriko arrainei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak aipatu den gertakariaren berri izan zuenetik? Nola izan zuen Foru Komunitateko Administrazioak aipatutako kutsagunearen berri?

2. Ba al daki Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu, eta Etxebizitza Departamentuak arrainen heriotzaren zergatia? Isuriak izan al dira edo beste zerbait? Zein lekutan izan zen zehazki kutsagunea? Zer ikerketa egin ditu Nafarroako Gobernuak kutsaguneari buruz?

SOS Nafarroan jasotako abisuaren ondotik, irailaren 10ean arrain hilak aurkitu ziren Araga

ibaian, Iruñean, San Pedroko monasterio zahararen parean, Antsoingo euri-uren kolektorearen ireeratik hasita. Lixibaren usaina nabamena zela eta, foruzainak Antsoingo udal igerilekuetara joan ziren, eta bertako arduradunak adierazi zuen 400 bat litro hipokloritok egin zutela ihes, mantentzaileek itxi gabe utzi baitzuten pasoko giltza.

3. Ondorio larriak eragin dituela uste al du Nafarroako Gobernuak? Zer kalte eragin dizkio kutsaguneari arrain populazioari? Zein da, orain, ibaiaren egoera?

Ondorioak larriak izan dira, 12.700 ziprinido hil dira eta. Dena den, ukitutako zatia kolonizatu egin da arrain-dentsitate handiko beste ibai-zati batzuetatik ekarritako arrainekin, eta horri esker egoera normalizatu egin da.

4. Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak horrelakoak berriz ere ez gertatzeko?

Horrelakorik berriz ere ez gertatzeko, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ondoko neurriak ezartzeko eskatu dio titularrari:

1) Jar ditzala araztegiak dauden hipoklorito-deposituetan zein depositu nagusian kubeta estanko eta iragazgaitzak, gutxienez ere horietako eduki osoa hartzeko edukierakoak.

2) Bideratu dezala hondakin-uren kolektore-sarera igerilekuetako araztegiak gerta litezkeen isurketak husten dituen ponpaketa, Arga ibaira zuzenean isur daitezkeen ekiditeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 30ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## “El Mirador” geriatrikoaren egoerari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak “El Mirador” geriatrikoaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 19ko 79. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 31n

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du “El Mirador” geriatrikoaren egoerari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak ondokoei buruz:

a) Geriatriko barreneko espazioen egoerari (jantokiak, egongelak, gelak eta beste batzuk) eta sarbideei (arrapalak, igogailuak, ateak) buruzko fiskalizazio eta betearazpenak.

Egituren eta instalazioen baldintzak, langileentarakoak eta segurtasunekoak, eta, oro har, gizarte zerbitzuetan ari diren zentro guztiek bete beharrekoak, azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legearen bidez, gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen eraientza ezarri zen eta hura garatu zuen 209/1991 Foru Dekretuan ezarri ziren.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri zuzendari nagusiaren 1998ko apirilaren 14ko ebazpenaz baimendu zen “El Mirador” Egoitza, behin aipaturiko arauetan jasotako betebeharrak betetzen zituela egiaztatu ondoren.

Gizarte zerbitzuetako zentroetarako baimena objektiboa da, eta arauz ezarrita dago. Gainera, alde batek eskaria eginda eman beharrekoa da baimen hori, betiere 209/1991 Foru Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Departamentu hau berrikusten ari den Plan Gerontologikoa onetsi zenetik dago arau hori; beraz, epe laburrean, eguneratu beharra egonen da.

b) Kanpora irteteko erraztasuna eta bere garaian geriatrikoari han jartzeko eta nagusientzako egoitza gisa aritzeko eskatu zitzaion ingurua.

Hemen ere egoitza hori baimentzeko baldintzak aipatzen dituzenez, aurreko galderari emandako erantzunean bilduta dago hori ere.

c) Profesionalen plantilla, material, jantzi eta elbarriei laguntzeko dispositiboak, ea guzti horiek egokiak diren egoitzan bizi diren nagusien zainketa bermatzeko.

“El Mirador” edadetuentzako egoitzak funtzionatzeko baimena eman baino lehen, egiaztatu egin genuen langileen plantillak aipatu dekretuan ezarritakoak betetzen zituela, eta arauz egin beharreko ikuskapen bisitan, egiaztatu ahal izan genuen baliabide material aski zeudela egoitzak zuzen funtzionatzeko.

2.- Nafarroako Gobernuak zer neurri hartu behar ditu epe laburrera eta epe ertainera El Mirador geriatrikoan gertatzen dena egiaztatu, zuzendu, eta, behar bada, horretan esku hartzeko, horrela, han bizi direnei, elbarriei bereziki, zainketa eta kalitate minimoa bermatzeko?

Gizarte zerbitzuetarako zentro bat funtzionamenduan sartzen denetik, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuko ikuskapen zerbitzuek beren kontrol-programan sartzen dute. Programa horri Ikuskapen Plana esaten zaio, eta urtarrilaren 27ko 2/1998 Foru Aginduaren bidez onetsi zen.

“El Mirador” edadetuentzako egoitzari dagokionez, aurtengo egun hauetan izan dira ikuskapen bisitak: martxoaren 11n, uztailearen 1ean, uztailearen 30ean, abuztuaren 25ean, irailaren 9an, irailaren 10ean, irailaren 11n, irailaren 16an, urriaren 7an eta urriaren 8an. Bisita horietan, zentroaren funtzionamendua egiaztatzeaz gainera, haren erabiltzaile gehien eta langileen iritzia ere eza-gutu dugu.

Gaur egun, egoitzaren kalitateari buruzko audiotoretza bat prestatzen ari da, aipatu Ikuskapen Planari jarraituz.

“El Mirador” Egoitza zabaldu zenetik, aurtengo ekainean, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak haren funtzionamenduari buruzko jarraipen erabatekoa egin du, sortu berritako edozein zentrok bizi dituen zailtasunak ezagututa.

Etengabeko arreta horrek bidea eman zuen, hasiera-hasieratik, antolamenduaren edozein akats antzeman eta akats horiek zuzentzeko behar diren zuzenketa neurri guztiak ezartzeko, Nafarroako Gizarte Ongizatearen institutuko Hirugarren Adinekoentzako Ataleko arduradun eta teknikariek eta Departamentuko Ikuskapen Ataleko teknikariek aldizka eginiko bileretan (haien aktak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan daude).

Zuzenketa neurrien aplikazioa bermatzeko eta behar ziren aholkuak emateko, abuztuan zehar, egunero, zentroan Hirugarren Adinekoentzako Ataleko teknikari espezialista bat aritu da.

Esku-hartze teknika egin bidenabar, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendaritzak kontaktuak izan zituen “Construcciones Gracia Tolosa” egoitzako jabetza duen enpresarekin.

Testuinguru honetan, enpresak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari jakinarazi zion Gizarte Zerbitzuen arloko izen eta esperientzia handiko nazio mailako entitate batek enpresaren, eta, zehazki, zaharrentzako egoitzen kudeaketa, irentsi nahi zuela.

Enpresa berriak urriaren 1etik hartu du bere gain egoitzaren ardura.

Azkenik, etorkizun hurbilerako proposaturiko neurri dagokienez, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak, jarraipena egiteaz gainera, lehenbiziko egunetik ari da uneoro bermatzen “El Mirador” Egoitzan ingresaturik diren pertsona edadetuei arreta egokia ematen zaiela. Zenbait neurri proposatu ere egin dira:

a) Plaza gutxiago izatea, arreta gehien behar duten pertsonentzako solairuetan eremu komunak zabaldu ahal izateko.

b) Arreta mediko-geriatrikoko eta fisioterapiako orduen kopurua handitzea, ingresaturiko pertsonen narriadura ikusita.

c) Zentroa erabiltzea, batez ere, egonaldi laburrerako; izan ere, instalazioek, indarreko arauak betetzen ez badituzte ere, ez dute ez eremu zaballik ez lorategirik ere, nahiz eta horrelakoak edukitzea oso ere komenigarria den egoitza batean ingresatu eta bertan betiko bizitzen gelditzen diren edadeko pertsonentzat.

Jarduketa horiek 1999rako aurreikusi den itunean bilduko dira.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 1998ko urriaren 28an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

## **Emakumeen modulua jartzeko Iruñeko espetxea egokitzeko obrei buruzko galdera**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak emakumeen modulua jartzeko Iruñeko espetxea egokitzeko obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 19ko 79. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 31n

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Emakumeen modulua jartzeko Iruñeko espetxea egokitzeko obrei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna:

1) Zer epetan buka daiteke Iruñeko espetxeko emakumeen modulua?

Emakumeen modulua jartzeko Iruñeko espetxea egokitzeko obren lehiaketa irailaren 28ko 46/1998 Foru Aginduaren bidez deitu zen, eta lizitatzailleak aurkezteko epea 1998ko azaroaren 2an bukatu. Obrak bost hilabetetan bukatu behar dira, eta, hortaz, 1999ko udaberrirako bukatuko direla aurreikusten da.

2) Nafarroako Gobernuak ba al du Iruñeko espetxeko egokitze-lanen berri emateko asmorik Nafarroako Parlamentuari, egiteko den emakumeen moduluaren gorabehera zehatzen berri izan dezan?

Nafarroako Gobernuak behar adina informazio emanen dio Nafarroako Parlamentuari baldin eta espetxeen kudeakateri buruzkoa ez bada, hori ez baitagokio Gobernuari.

Hori guztia jakinarazi dizut bidezko ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 1998ko urriaren 27an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

## Elortz ibaian, Etxabakoitzen parean, hilik aurkituriko arrainei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Elortz ibaian, Etxabakoitzen parean, hilik aurkituriko arrainei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 13ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 4an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Elortz ibaian, Etxabakoitzen parean, hilik aurkituriko arrainei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak aipatu den gertakariaren berri izan zuenetik? Nola izan zuen Foru Komunitateko Administrazioak aipatutako kutsagunearen berri?

Irailaren 25eko eguerdian, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak partikular batek eginiko telefono-dei baten bidez jakin zuen Etxabakoitzen (Iruña) parean, Elortz ibaian, arrain hilak agertu zirela.

Leku hartara joan ziren langileek arrain hilak zeudela egiaztatu zuten, eta ibaian gora joan ziren heriotza horien zergatien bila.

2. Ba al daki Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak arrainen heriotzaren zergatia? Isuriak ala beste zerbait izan dira? Zein lekutan izan zen zehazki kutsaguna?

nea? Zer ikerketa egin ditu Nafarroako Gobernuak kutsaguneari buruz?

Arrainak hilik gertatu aurreko orduetan, euri asko egin zuen. Ibilguan ibili ondoren, ez zen aparteko isurketarik antzeman alderdi hartan, ez zuzenean egindakorik, ez Beriain-Etxabakoitz kolektorearen gainezkabidea erabilia egindakorik ere. Hori dela eta, uste dugu arrainen heriotza errekan pilaturiko lohiekin lotu behar dela, izan ere erreka faunan eragin zuzena izan zuen oxigeno eza ekarri baitzuen lohiek.

3. Ondorio larriak eragin dituela uste al du Nafarroako Gobernuak? Zenbat arrain kaltetu zituen kutsaguneari? Zein da, orain, kalteturiko ibai zatiaren egoera?

Mila bat zarbo, lolina txiki eta zamo hil ziren. Ibaiaren egoera normala da berriz ere, eta aipatu espezieetako aleak sartzen hasi dira tarte horretan, heriotzarik gertatu ez den beste tarte batzuetatik ekarrita.

4. Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak horrelakorik berriz ere ez gertatzeko?

Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean azaldu nuen programan adierazitako neurriak ezarriko ditu Gobernuak egin ohi dituen kontrol eta zaintza lanez gainera. Programa hori erantzun honen eranskinean eman dugu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 30ean.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

(Oharra: Aipatu programa Foru Parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).



## Aho-hortzetako arretari eta hori eskaintzeko moduari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro María Antuñano Zárraga Foru Parlamentario jaunak aho-hortzetako arretari eta hori eskaintzeko moduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 27ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 4an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratien Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Pedro M<sup>a</sup> Antuñano Zárraga Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du aho-hortzetako arretari eta hori eskaintzeko moduari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1.- Aho-hortzetako arreta 16/18 urte bitarteko adinera arte luzatzea pentsatzen ari al da O-NOZ?

Haurren aho-hortzetako arretari buruzko 58/1991 Foru Dekretuan aurreikusitako hazkunde erritmoa ari da betetzen 1991tik aitzina. Horrela, Haurren Aho-hortzetako Osasun-laguntzaren Programa ahalik eta haur kopururik handienari, hau da, 6 eta 15 urte bitarteko 50.000tik gora haurri eskainiko zaio 1999an. Haurrek programan sartzeko eskubidea izanen dute 6 urte betetzen duten urteko urtarrilaren 1etik 15 urte betetzen duten urteko abenduaren 31ra bitarte.

2.- Bestalde, zer iritzi dauka O-NOZek Nafarroako populazioaren gainontzekoari arreta estomatologikoa, bereziki oreztapenak, eskaintzeko irizpideei buruz, eta horren gastuen zama gainean hartzeaz?

O-NOZek eskain zitzakeen baina eskaintzen ez dituen prestazio odontologikoak lehentasunen arabera daude sailkaturik, eta aurrekontuek horretarako bidea ematen duten neurrian eskaini ahal-ko dira osasun-sistemaren prestazioen artean.

Lehentasun odontologikoen artean, osasun sistema orokorrean sartu gabe dauden beste prestazio batzuen atzetik daude herritar guztien oreztapenak.

1. Haurren artean aurea hartzea (1986tik aitzina).

2. Haurren Aho-hortzetako Osasun-laguntzaren Programa, 1991tik aitzina (erabat ezartzeke, eta haren estaldura handitu eta sendotzeke).

3. Txantxarra eta gaisotasun periodontala izateko arrisku handia duten populazio-taldeen aho-hortzetako laguntza: urritu psikikoak (1992tik aitzina), urritu fisikoak (inmuno-eskasia larria dutenak, instituzionalizatuak...).

4. Zaharren aho-hortzetako laguntza, jarduketa prebentibo eta terapeutikoak barne.

5. Haurdun daudenen aho-hortzetako laguntza.

6. Herritar guztiei zuzendutako jarduketa prebentiboak.

7. Herritar guztiei zuzendutako jarduketa sendagarri eta terapeutikoak (hor kokatzen dira oreztapenak).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 30ean

Osasun Kontseilaria, Santiago Cervera Soto

## Iruñeko espetxeko euskarako irakaslearen izendapenari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak Iruñeko espetxeko euskarako irakaslearen izendapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 13ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 4an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Iruñeko espetxeko euskarako irakaslearen izendapenari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak euskarara eskolak emateko irakasle bat izendatu du Iruñeko espetxerako, horren erantzukizun administratiboa eduki gabe ere, noiz eta aldi baterako kontratazioaren bidez maisu-maistren lanpostuak esleitzeko ekitaldi publikoan.

Departamentu honi ez dagozkion arrazoiengatik –horien artean, aldi baterako kontratuei uko egiteko maisu-maistrek duten eskubidea, 222/98 Foru Aginduan ezarritakoa–, izendatutako maisua ez da lanera sartu 98-10-13ra arte.

2. Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak irailaren 11n eskatu zizkion Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiari ikasturte honetarako beharko zituen maisu-maistrak; hala ere, Iruñeko Espetxeko Zuzendaritzak irailaren 1a baino lehen ere zenbait kontaktu eginak zituen Helduen Hezkuntzaren eta Osabidezkoaren Unitate Teknikoarekin. Horri dagokionez, ondoko zehaztapenak egin behar dira:

“Helduen Hezkuntza” izeneko hirugarren tituluko 51.1 artikuluan hauxe ezartzen du LOGSE legeak: “hezkuntza sistemak bermatu egiten du heldu guztiek modua izatea bere garapen pertsonal eta profesionalerako behar dituen ezagutzak eta gaitasunak eskuratu, eguneratu, osatu eta zabaltzeko. Horretarako, hezkuntza administrazioak lankidetzan arituko dira helduen hezkuntzan

eskumenak dituzten beste administrazio publikoekin, eta bereziki, lan administrazioarekin”.

4. atalean, hauxe dio: “espetxeetan, hezkuntza horretan sartzeko aukera bermatuko zaie espetxeratuei”.

Egun, Barne Ministerioaren menpeko Espetxeetako Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakaslearen kidegoko funtzionarioak eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpeko maisu-maistren kidegoko funtzionarioak edo kontratupeko langileak dira Iruñeko Espetxean helduen hezkuntzan ari direnak.

Aipatu beharrekoa da oraindik ez zaizkiola Hezkuntza eta Kultura Departamentuari transferitu Barne Ministerioaren menpeko irakasleak.

Halaber, oraindik ez dira onetsi espetxeetako hezkuntza unitateen funtzionamendu arauak, alegia, hezkuntza- eta espetxe-administrazioen ardurak zehaztuko dituztenak.

Bestalde, ez dago inolako hitzarmenik Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren eta Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren artean Iruñeko Espetxeko irakasleak izendatzeko. Zentro horrek Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiari ikasturtero egindako eskaerak baizik ez dira erantzun.

1998/99 ikasturtean Departamentu honen menpeko ondoko maisu-maistrak arituko dira Iruñeko Espetxean:

– Gorputz Hezkuntzako (eta Kirol Jardueretako) maisu bat.

– Ingeles maisu bat.

– Gai orokorretarako maistra bat.

– Euskara maistra bat (lanaldiaren erdia).

3. Euskara ikasle izateko EGA edo haren baliokidea izatea eskatzen da. Halakorik ezean, Euskaraz nahiko ongi dakiela ziurtatu beharko du.

4. 1. puntuan erantzun diogu galdera honi.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 2an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## Zizur Nagusiko ikastetxe publikoko D ereduko irakasleei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak Zizur Nagusiko ikastetxe publikoko D ereduko irakasleei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 13ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 4an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Zizur Nagusiko ikastetxe publikoko D ereduko irakasleei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1. Ez da egia Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Zizur Nagusiko I.P.ko Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan –D eredua– bikoizketarik egin ez duenik. Ikastetxeak baliabide aski eta sobra ditu bikoizketa egiteko. Alde batetik, irakasle espezialistetako batek asteko 11 ordu baizik ez ditu irakastekoak; gainerako orduak –lehen hezkuntzako irakasleek ezarrita dituzten 25 orduak bete artekoak– aski dira gurasoek eskatu duten bikoizketaren ondorioz sortuko litzatekeen taldearen tutoretza hartzeko.

Bestalde, ikastetxeko D ereduak dauzkan gai orokorretako 11 tutoreek 17 irakastordu baizik ez dute; izan ere, Atzerriko Hizkuntzako, Gorputz Hezkuntzako, Musikako eta Erljioko irakasle espezialistak baitira ikasle taldeei gainerako orduetan arreta egiten dietenak. Horrenbestez, ikastetxeak tutore horien 88 ordu ditu astean –hau da, 3,5 irakasle– Lehen Hezkuntzako 3. maila bikoizteko.

2. Hona irakasleei buruzko datuak mailen eta hizkuntz ereduaren arabera antolatuta:

Haur Hezkuntza:

– G eredua: 13 irakasle 12 taldetarako.

– D eredua: 7 irakasle 6 taldetarako.

Lehen Hezkuntza:

– G eredua: gai orokorretako 17 tutore 17 taldetarako.

Ingeleseko 2 irakasle.

Gorputz Hezkuntzako 2 irakasle.

Musika irakasle bat.

Pedagogi Terapeutikoko 2 irakasle.

Bi euskara irakasle.

– D eredua: gai orokorretako 11 tutore 11 taldetarako.

Ingeleseko bi irakasle.

Gorputz Hezkuntzako irakasle bat.

Musika irakasle bat.

Pedagogi terapeutikoko irakasle bat.

Ikastetxeak, gainera, 3 erlijio irakasle ditu lanaldi osoan eta 1 partekatua, logopeda bat lanaldi osoan eta beste bat zortzi ordutarako, eta orientatzaile bat.

3. D ereduko jarduera akademiko osoa euskaraz egiten da.

4. Zizur Nagusiko I.P.ko Lehen Hezkuntzako D ereduan, batez beste, 18,4 ikasle dago ikasgela bakoitzean. Ikastetxeko Antolamenduari buruzko agiria aztertuta, ondokoa ondoriozta daiteke: laguntzako 23,30 ordu aurreikusi dira astean, eta horiei Pedagogi Terapeutikoko irakaslearen 25 orduak gehitu behar zaizkie; 26,20 ordu daude ordezkapenak egiteko; irakasle bakoitzak, batez beste, 3,30 ordu ditu atsedendaldietan arreta egiteko, eta astean “zehaztu gabe” izenarekin ezagutzen diren 23,30 ordu daude.

Emandako datuekin, erraz ondoriozta daiteke Zizur Nagusiko I.P.ak ikastetxeko hezkuntza premia guztiei arazorik batere erantzuteko behar dituen irakasle eta espezialista guztiak eta gehiago dituela; betiere, antolamendu egokia, arazoizkoa, zehatza eta malgua beharko da ordutegietan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 29an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros.

## Gure Komunitatean dauden turismo informazioi-bulegoei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak gure Komunitatean dauden turismo informazioi-bulegoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 19ko 79. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeari atxikitako Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du gure komunitatean dauden turismo-bulegoei buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak 10 turismo-bulego eta Erreserba Zentral bat ditu guztira, ondoko herrietan banaturik:

Iruña (bulegoa eta zentrala), Erronkari, Otsagabia, Orreaga, Oieregi (Bertizko Jaurerria), Lekunberri, Lizarra, Erriberri, Zangoza eta Tuteran.

Herriko zein herriaren eraginpeko alderdiko turismoan oinarrituta egiten da banaketa. Populazioak ez du eraginik bulegoak banatzerakoan, horien funtziorik behinena turistei informazioa ematea baita.

Bulegoetarako kontratatutako langile kopurua aldatu egiten da denboraldiaren zein gertakizun berezien arabera (Xacobeoa, funtzioak areagotzea, etab.) eta, hortaz, eskaera-aurreikuspenen arabera. Ondokoak dira 1998rako aurreikuspenak:

– Goi-denboraldia: 29 lagun

– Behe-denboraldia: 24 lagun

Turismo-bulegoetan ez da ikaslerik izaten, denak dira Nafarroako Gobernuak kontratatutako langileak.

Bulegoetan 3 langile mota dago, eskatutako titulazioa (administrazio edo informatika alorreko LHII eta C maila) zein den. Ondokoa da banaketa (adibidea goi-denboraldiari dagokio):

Bulegoa	TEJT	LHII	C maila
---------	------	------	---------

Iruña	1	2	1 (egun TEJT)
Erreserba Zentrala	1	1	1 (egun TEJT)
Erronkari	1	1	
Otsagabia	1		1 (egun TEJT)
Orreaga	1	1	1 (egun TEJT)
Bertiz	1	1	1 (egun TEJT)
Lekunberri		1	1 (egun TEJT)
Lizarra	1	1	1
Erriberri	1		1
Tutera	1		1
Zangoza	1	1	1 (egun TEJT)
GUZTIRA	10	9	10

Langileak kontratatzean merezimendutzat jotzen da atzerriko bi hizkuntza (frantsesa, ingelesa eta alemanieraren artean aukeran) ahoz zein idatziz jakitea.

1998an sortutako C mailetan, euskara merezimendutzat jo zen eremu euskaldunetan.

TEJT eta LHII dutenei euskara jakitea eskatu zitzaizen eremu euskaldunetako bulegoetan.

Langile euskaldunak, bulegoz bulego:

Iruña eta Erreserba Zentrala	1
Orreaga	2
Bertiz	3
Lekunberri	2
Lizarra	1
Zangoza	1
GUZTIRA	10

1998ko urriaren 7an bi lagun zeuden Iruñeko bulegoan (Gobernuko langileak biak): bata C mailakoa, administrazio-kontratarekin lanpostu hutsa betetzen ari dena, eta LHIIko kontratatu bat.

Une honetan, toki arazoak direla-eta, bereizita daude Iruñeko bulegoa eta Erreserba Zentrala. San Frantzisko plazako bulegoko obrak martxo-aperila aldean bukatutakoan bateratu egiten dira bi zerbitzu horiek, hau da, hasieran zen bezala. Zerbitzu hori euskaraz ere erabiltzen ahal da, baina, dena den, horretarako erraztasun gehiago izanen da instalazio berrietara pasatzean.

Iruñean, 1998ko azaroaren 2an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria, Ramón Bultó Llevat

## 1999 urterako lan arlorako Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako inbertsioei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak 1999 urterako lan arlorako Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako inbertsioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 19ko 79. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 11n

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1999 urterako lan arlorako Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako inbertsioei buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak Nafarroako aurreikusita zeukan 450 milioi pezetako inbertsioa INEMeko Buruzagitza Probintzialerako lokal berriak erosteko zen. Hori guztia aurten ari da egiten, eta horrenbestez, 1999rako aurreikusi-

tako inbertsioa, Ministerioak Nafarroan dituen bulegoak eta higiezinak konpondu eta zaintzera bideratua, gutxitu egin da.

1.- Aurreikusitako zenbatekoa beste ekitaldi batzuetakoaren antzekoa da, lortu nahi diren helburuetarako nahikoa, frogatu bezala.

2 eta 3.- Inbertsio berekiak direnez, ez dute eraginik enplegurako inbertsio proiektuetan. Proiektu horiei aurre egiteko, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak 1999ko bere aurrekontuetan jarri dituen kapital-transferentziako kontusailak daude, eta beste horrenbeste gertatzen da beharrezkotzat jotzen diren inbertsio berekiekin, Ministerioaren aurrekontua zeinahi ere den.

4. Inbertsioak doitu egin behar izaten dira beti, baina horrek ez du eraginik izan behar enpleguko gainontzeko politika aktiboetako transferentziak negoziatzerakoan; izan ere, gertatu diren gorabeherak behar bezala balioetsiko dira transferentziak finantzatzeko akordioan. Berez, eskuratzeko dauden enpleguko transferentziek 1999ko urtarrilaren hasierarekin indarra hartzea aurreikusten da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 5ean

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

## Nafarroako Hizkuntz Eskolako leku ezari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Nafarroako Hizkuntz Eskolako leku ezari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 19ko 79. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 11n

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak galdera egin du Nafarroako Hizkuntz Eskolako leku ezari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1go. Joan den urtarrilean, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuan, atzerriko hizkuntzen batzorde tekniko bat osatu zen. Hiru helburu zituen:

1. Nafarroako Foru Komunitatean, ikastetxetan, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza zertan den aztertzea.

2. Atzerriko hizkuntzen irakaskuntzari buruzko jardunaldiak antolatzea, 1998-99 ikasturtean, azterlanaren emaitzak zabaltzeko eta inplikaturako sektore guztiei parte hartzen uzteko.

3. Atzerriko hizkuntzen irakaskuntza hobetzeko plan bat proposatzea, datozen 10 urteetarako.

Atzerriko hizkuntzen batzordeak egindako lanen behin-behineko emaitzak luzazki azaltzeko aukera izan nuen, joan den azaroaren 3ko agerrialdian, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordean. Hartan esan nuenez, Departamentu honen iritzia da Hizkuntz Eskola Ofizialen inguruan hartu beharreko edozein erabaki batzordearen behin betiko ondorioen arabera izan dela; izan ere, haren ikasle eta eskatzaile gehienak bigarren hezkuntzako ikasleak edo unibertsitatekoak dira, eta ikasle horiek beren zentroetan hizkuntzak ikasteko aukera ez ezik beharra ere badute; hizkuntza horiek, bestalde, hizkuntza eskoletan eskatzen dituztenak dira (frantsesa eta, bereziki, ingelesa).

Horren ondorioz, hizkuntz eskola gehiago sortu edo ez sortzeko erabakia esparru zabalagoan hartu behar da, hots, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza hobetzeko estrategia orokorraren baitan; haur, lehen eta bigarren hezkuntzetan era-

bilitako baliabideen ekonomiak izan behar du strategiaren helburu nagusi. Kontuan har bedi Nafarroan ikastetxeen % 72k aurreratu egiten duela atzerriko hizkuntzen ikasketaren hasiera; derrigorrezkoa da lehen hezkuntzako bigarren zikloan hastea (8 urterekin) eta lehen zikloan hasten dira (6 urterekin) edo haur hezkuntzako bigarren zikloan (3 edo 4 urterekin).

Ildo horretatik joan dira Iruñeko Hizkuntz Eskola Ofizialeko zuzeneko arduradunen esanak.

2gn. Atzerriko Hizkuntzen Batzorde Teknikoaren ondorioetako bat da hizkuntz eskola ofizialen funtzioak birdefinitzea beharrezkoa dela. Aurretik esan denetik ondorioztatzen da, argi eta garbi, bigarren hezkuntzako ikasleak eta unibertsitatekoak ezin direla izan hizkuntz eskola ofizialen berezko ikasleak; beste hauek izan behar dira lirateke eskola horien ikasleak: hizkuntzak ikasteko aukerarik izan ez duten helduak, derrigorrezko eskolatzeko-aldian jasotako hizkuntzak ez beste batzuk ikasi nahi dituzten pertsonak eta euren ezagutza eguneratu edo hartan sakondu nahi duten profesionalak. Zernahi dela, hizkuntz eskolen inguruko erabakiak ezin dira ez inprobisatu, ez sortutako batzorde teknikoak hasitako ebaluazio eta eztabaida prozesua kontuan izan gabe hartu.

3gn. Gorago aipatu dudan agerrialdian, Parlamentuko taldeei azaldu nien Hezkuntza eta Kultura Departamentuak duen asmoa, Urrutiko Hizkuntz Eskola Ofiziala sendotzekoa. Nafarroako "asmakizun" horrek emaitza onak izan ditu, eta bigarren hezkuntzako zentroekin duen lankidetzaren programaren helburua da ikastetxe horietako hezkuntza arautua koordinatzea Hizkuntz Eskola Ofizialeko hezkuntzarekin; hala, alde batetik, honen ikasle kopuru handia jaitsi egiten da eta, bestetik, bigarren hezkuntzako ikasleek oinarrizko zikloko titulua lortzeko aukera dute, euren geletan egunero egin ohi duten ahaleginarekin, gehiago ahalegindu beharrik gabe.

Atzerriko Hizkuntzen Batzordeak proposatu legez, hurrengo urteetan Nafarroako Urrutiko Hizkuntz Eskola Ofiziala sendotu behar da, eta baita goi mailako ziklora hedatzeko aukera aztertu ere.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 5ean

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## 1999 urterako liburu-fondoak eguneratzeko aurreikuspenari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentario jaunak 1999 urterako liburu-fondoak eguneratzeko aurreikuspenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 19ko 79. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 11n

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1999 urterako liburu-fondoak eguneratzeko aurreikuspenari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Garbiketa prozesua, hala Liburutegi Nagusikoa nola Nafarroako liburutegi publikoetako sarekoa, orain gutxi egin denez, zaila da zehazten liburu-fondoak eguneratzeko aurreikuspena, zeren bi prozesu horiek lotuta baitaude. Ondokoa da liburu-fondoak, batez ere argitalpen berriak eta fondo historikoa, erosteko aurrekontu-aurreikuspena:

19.000.000 pezeta, Nafarroako Liburutegi Nagusirako argitalpen fondoak zein ikusentzunezkoak erosteko.

62.000.000 pezeta, Nafarroako liburutegi publikoetako sarerako argitalpen fondoak zein ikusentzunezkoak erosteko.

(Erantzunarekin batera doa sareko 84 liburutegi-gien zerrenda, ondoko kodetze-irizpidearen arabera banatua: 01 kodea, 3.000 biztanletik gorako herrietako liburutegi publikoak (31); 02 kodea,

Nafarroako Gobernuak kudeaturiko liburutegi publiko guztiak (66); 03 kodea, Nafarroako liburutegi guztiak, Nafarroako Gobernuak kudeaturikoak zein itunduak (84); 04 kodea, euskaraz eginiko liburuak bidaltzen diren liburutegiak)

2.- Nafarroako Gobernuak 1996an erabaki zuen zein sistema informatiko ezarri liburutegi publikoetako sarean: ABSYS liburutegiak kudeatzeko programa, hori baita zabalduena eta Estatu-ko liburutegietako sarean ezarrita dagoena.

Liburutegi publikoak informatizatzeko planaren bigarren fasea 1999an bukatuko da. Esku hartuko da Nafarroako Liburutegi Nagusian eta Altsasu, Barañain, Burlata (2), Lizarra, Uharte, Mendabia, Iruña-Milagrosa, Iruña-Orvina, Iruña-Donibane, Iruña-San Pedro, Zangoza, Tutera, Atarrabia eta Zizurko (2) liburutegietan. 1999ko aurreikusi da hirugarren faseari ekitea. Faseko horrek 2.500 biztanletik gorako herrietako liburutegiak hartuko ditu. Horretarako aurrekontu-aurreikuspena 18.000.000 pezetakoa da.

3.- Liburutegiei buruzko nazioarteko jarraibideek ez dute liburutegiko zerbitzu gisa ikusten "ikas-teko gela" bat jartzea liburutegiko fondoak baliatzen ez dituzten ikasleendako. Sare publikoko liburutegi guztiek dute liburu-fondoak kontsultatu eta irakurtzeko gela.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 4an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria, Jesús Javier Marcotegui Ros

(Oharra: Aipatu eranskina Foru Parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

## “Sociedad Aguas de la Cuenca del Ebro, SA” sozietatearen bitartez obra hidraulikoak egiteko inbertsioei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak “Sociedad Aguas de la Cuenca del Ebro, SA” sozietatearen bitartez obra hidraulikoak egiteko inbertsioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 19ko 79. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 12an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Sociedad Aguas de la Cuenca del Ebro, SA” sozietatearen bitartez obra hidraulikoak egiteko inbertsioei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Ingurugiro Ministerioaren eta ACESaren arteko hitzarmen horretan Nafarroan zer obra hidrauliko burutzea aurreikusten da? Zehatz bitez jarduketa mota, zein urtetan hasiko den, guztizko aurrekontua eta aurreikusitako amaiera data.

“Ingurugiro Ministerioaren eta Aguas de la Cuenca del Ebro SA Estatuko sozietatearen arteko ituna, obra hidraulikoen eraikuntza edo/eta ustiapenaren kudeaketa zuzena egiteko” izeneko 1998ko ekainaren 11ko agiria, 1998ko ekainaren 25eko Ebroko Konferederazio Hidrografikoaren Gobernu Batzordearen bileran jaso zuen Nafarroako Gobernuak.

Itun horretan, Aguas de la Cuenca del Ebro, SAK eginen zituen jardueren zerrenda izenduna biltzen duen eranskin bat dago, argibide gehiagorik eman gabe.

Honakoak dira eranskin horretan jasotako obrak, Nafarroan (zati batean edo osorik) egiteko direnak:

- Lodosako Ubidea gaurkotzea: 2. 3. eta 4. faseak.
- Bardeako Ureztaketa Sistemarako alboetako urtegiak.

- Azaleko eta lurrazpiko urak kontrolatzeko sareak (SAIH-SAICA).

- Ubide eta erreka bazterretako jarduketak.

- Higadura zuzentzeko jarduketak.

- Itoizko presaren oinetan egin beharreko zentrala.

Halaber, itun horretako klausula gehigarri batean, aipatu eranskinean bilduriko obra batzuen norainokoa, helburua, inbertsioa, finantzaketa eta abar ere zehazten dira.

Ituneko klausula gehigarrian zehazturiko obrak –Nafarroan egiteko direnak–, erantzun honen eranskinean jarri ditugu.

2. Zer nolako finantzaketa sistema izango du aurreko idazatian aipaturiko obra bakoitzak?

Galdera honen erantzuna aurrekoan eman dugu.

3. Nafarroako Gobernu gure Komunitatean Sozietate horren eskumenekoak izango diren obra edo azpiegituretakoren batean finantzaketa pribatua sustatzearen alde al dago? eta horiek gauzatzeko erabilgarri diren baliabideen enpresa kudeaketa sustatzearen alde? Baiezkoan: Zeintzuk izan litezke ukituriko jarduketak?

Galdera hau 1997ko azaroaren 14an ere egin zen; beraz, antzekoa da eman beharreko erantzuna. Nafarroako Gobernuak, bere inbertsioei buruzko jarduketa planetan, ezin du egungo legediak eskaintzen dituen bide administratibo eta ekonomikoetatik bakararra ere baztertu.

Nafarroako Gobernuak gaur arte ez du gogoan hartu aldi berean sozietate horren eskumen diren obrak finantzaketa pribatua egitea.

4. Nafarroako Gobernuaren ustez enpresa kudeaketak eta finantzaketa pribatuak gure Komunitatean egiten ari diren edo aurreikusitak dauden jarduketak burutzea bizkortu al dezakete?

Galdera hau ere 1997ko azaroaren 14an egin zen, eta beraz erantzuna orduan eman genuen antzekoa izanen da. Oro har, ustiatu beharreko azpiegitura publikoetarako finantziario pribatua kontraprestazio ekonomikoaren bidez lortzen saiatzearen xedea da, hain zuzen ere, obra horien eraikuntza azkarragotzea, izan ere kapital pribatuak egiten dituen ekarpen ekonomikoak ez ditue-



lako administrazio publikoak egin behar; horrenbestez, Nafarroako Gobernuak formula hori erabiliko balu, zalantzarik gabe obra burutzeko epeak laburtzeko xedez eginen luke.

5. Hitzarmen honetatik at, ACESArekin beste-lako jarduketa hidraulikorik egitea aurreikusten al du Nafarroako Gobernuak?

Galdera honen erantzuna 3. galderari emanda-koan dago.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 4an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

(Oharra: Aipatu eranskina Foru Parlamentario-  
en esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako  
bulegoan).

---

## Zizur Nagusiko D ereduko lehen hezkuntzako hirugarren ikasturteko tal- dea destolesteari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Zizur Nagusiko D ereduko lehen hezkuntzako hirugarren ikasturteko taldea destolesteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 19ko 79. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 12an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parla-mentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Zizur Nagusiko D ereduko lehen hezkuntzako

hirugarren ikasturteko taldea bikoizteari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erant-  
zuna:

Ikastetxeak nahikoa bitarteko du bikoizketa egiteko.

Zizur Nagusiko ikastetxe publikoak irakasle eta aditu nahiko du ikastetxearen hezkuntz beharri-  
nei inolako arazorik gabe aurre egiteko, baldin eta ordutegien antolakuntza egokia, arrazoizkoa, zorrotza eta malgua bada.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 6an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria, Jesús  
Javier Marcotegui Ros

---

## Bidezidorren sare nagusiaren egoera eta mantenimenduari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak bidezidorren sare nagusiaren egoera eta mantenimenduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30eko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 13an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du bidezidorren sare nagusiaren egoera eta mantenimenduari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du GR 11 (Pirinioko bidezidorra) delakoaren hondamenaren berri? Zeintzuk dira zatirik hondatuena?

GR 11 bidezidorreko lur guztiak ez daude Nafarroako Gobernuaren esku; beraz, ez da

horiek zaintzen ari. Bide tarte batzuetan, GR 11 bidezidorrak errepide, basobide, abelbide, jabe partikularren lur eta herrilurrak zeharkatzen ditu.

2.- Zer neurri hartu behar du Nafarroako Gobernuak GR 11 ibilbideko bidezidorrak bereonera eta seinaleen aldetik ongi mantentzeko?

Bidezidorrei buruzko legerik ez dagoenez –errepide, bide, abelbide eta abarretan gertatzen denaz bestera–, zehaztu gabe daude Administrazioak sektore horretan egin beharrekoak.

3.- Zenbat diru aurreikusten da horiek zaindu eta mantentzeko?

Ez da dirurik batere aurreikusi.

4.- Gaur egun, ba al da ildo horretatik jarduteko aurreikuspenik? Hala bada, zeintzuk?

Ildo horretan jarduteko aurreikuspenak egin baino lehen, arautu egin beharko da jarduera hori.

Hori guztia jakinarazi dizut bidezko ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 1998ko azaroaren 6an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

## Eugi ondoko putzu batean gai kimiko pozoitsu bat isurtzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Eugi ondoko putzu batean gai kimiko pozoitsu bat isurtzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 19ko 79. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 13an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Eugi (Esteribar) ondoko putzu batean gai kimiko oso pozoitsu baten 500 Kg isurtzeari buruz. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilari honek Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean hemendik gutxira izanen duen agerraldirako prestatutako testua erantsi dut, horretan eskatutako informazio guztia dagoelakoan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998 azaroaren 4an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo.

(Oharra: Aipatutako agerraldia Lurraldean Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen Bilkura Egunkarian argitaratu zen, 35 alean.)



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat..... 6.000 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 140 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 175 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--